



## GOIERRIKO GAUR EGUNGO ETA ETORKIZUNEN ENPLEGU PLANA 2022

“ESKUALDEAK 2022” PROIEKTUAK

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Turismoko eta Landa  
Inguruneko Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Promoción  
Económica, Turismo  
y Medio Rural

# AURKIBIDEA

- 01** **SARRERA** 3. orrialdea

---
- 02** **LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA** 5. orrialdea

---
- 03** **LAN MUNDUAREN GAP-aren GAUR EGUNGO ETA ETORKIZUNEKO EGOERAREN AZTERKETA** 58. orrialdea

---
- 04** **ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA** 79. orrialdea

---
- 05** **ERRONKEN ERANTZUNAK** 93. orrialdea

---
- 06** **ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK** 103. orrialdea

---
- 07** **GOBERNANTZA** 125. orrialdea

---

# 01 SARRERA

# 01 SARRERA

“Goierriko egungo enplegu-plana eta prospektiba” proiektuaren helburua atxikipen-gaitasuna hobetzea da, eta, bereziki, Goierriko Ekonomia Sareak langileak erakartzea.

Horretarako hainbat lanpostutarako hautagai-zerrenda gehiago sortuko dituzten irtenbideak eskaintzen ditu, jendea erakartzeko zailtasunak gaindituz eta enpresek eskatzen dituzten profilak lan-merkatuak eskaintzen dituenetara hurbilduz.

Enplegu planak funtsezko eta oinarrizko ikuspegi bat izango du. Plan honetan estrategiak identifikatu eta lan ildoak zehaztuko dira, enpresek langile kualifikatu berriak eskuratu ahal izan ditzaten, gaur egungo eta etorkizuneko beharrak asetzeko. Ukaezina da eskualdean dagoen arrakala langabezia eta lan postuen artean, eta arrakala horren arrazoia eta konponbidea izango dira enplegu planaren mamia. Horretarako ezinbestea da eskualdearen demografia mapa bat sortzea, gizartearen beharrak eta enpresen beharren erantzuna aztertzeke. Proiektua azterketa prospektibo bat dela nabarmentzea ezinbestekoa da.

Proiektuak etorkizuneko plangintzarako eredu baten fase klasikoak garatzen ditu. Eredu horretan, eragileek parte hartzeko elementua funtsezkoa da, eta horregatik garatzen da erabakiak taldean eraikitzeke prozesuaren bidez. Lehenik eta behin, egoeraren eta Goierriko enpresen egungo eta etorkizuneko langileen beharren eragileekin adostutako diagnostiko batekin hasten da, gizarte eta enpresa demografia aztertuz kuantitatiboki eta kualitatiboki. Bigarrenik, etorkizuneko agertoki posibleak eta langileen eskasiari irtenbideak emateke estrategiak eta lan-ildoak diseinatzen dira, horretarako enpresekin kontaktua ezinbestekoa da, beraien beharrak entzunez ondorio zehatzak eskuratzeko. Ondoren, proiektuaren emaitzak eztabaidatu eta eragile guztiekin alderatuko dira, eta, hala badagokio, egokitzen jotzen diren alderdiak gehituko dira.


Enplegu planaren azken xedea eskualdeko errealitatea aztertzea eta etorkizun hurbilean (2030-2045) izango diren zailtasunak aurreikusi eta gainditzea izango da. Azterketa prospektibo eta estrukturala den heinean garrantzia bizikoa izango da datozen urteetako erronkei behar bezala erantzutea eskualdeko ongizatea bermatzeko.

## 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.1 Demografia

### Biztanleria




Iturria: Ine: udal errolada ekitaldi bakoitzeko urtarrilak 1ean

- **Goierriko biztanleria** gaur egun **44.080** biztanlekoa da azken azken errolda datuen arabera. Azken **15 urteetan 3.547 biztanle irabazi** dituen arren, **azken 2 urteetan 436 biztanle galdu** dira.
- **Biztanleriaren maximora 2020 urtean** iritsi zen eta Goierrik EAEren eta Gipuzkoaren joera jarraitzen du.

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.1 Demografia

### Biztanleriaren bilakaera




Iturria: Ine: udal errolada ekitaldo bakoitzeko urtarrilak tean

- **Beste lurraldeekin alderatuta bilakaera askoz handiagoa izan da aurreko urteetan**, 2020an balio positiboak mantendu zituen bakarra izanik. Hala ere, azken datuek kontrako joera erakuste dute, Gipuzkoa eta EAE baino hazkunde negatibo handiagoarekin.
- 2008tik EAEko hazkundera **%2,61ekoa** izan da, Gipuzkoakoa **%4,26** eta **Goierrikoa %7,22**, nabarmen altuagoa.


# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.1 Demografia

### Biztanleria udalerrrika



2001-2022 eboluzioa



	2001	2006	2011	2015	2018	2020	2022	2001-2022	
Altzaga	113	149	158	178	184	183	171	58	51,3%
Arama	166	171	197	213	209	204	198	32	19,3%
Ataun	1.571	1.577	1.663	1.674	1.723	1.747	1.676	105	6,7%
Beasain	11.997	12.570	13.646	13.915	13.977	14.021	13.763	1.766	14,7%
Gabiria	427	418	507	509	506	513	525	98	23,0%
Gaintza	100	129	129	123	120	114	129	29	29,0%
Idiazabal	2.014	2.128	2.302	2.336	2.379	2.380	2.331	317	15,7%
Itsasondo	589	589	665	674	702	728	657	68	11,5%
Lazkao	4.781	5.046	5.302	5.349	5.462	5.632	5.768	987	20,6%
Legorreta	1.365	1.402	1.528	1.483	1.502	1.490	1.476	111	8,1%
Mutiloa	206	200	235	254	251	255	243	37	18,0%
Olaberria	928	893	936	935	905	917	925	-3	-0,3%
Ordizia	8.807	8.986	9.547	9.483	9.720	10.070	10.010	1.203	13,7%
Ormaiztegi	1.189	1.264	1.309	1.292	1.321	1.276	1.242	53	4,5%
Segura	1.275	1.283	1.485	1.500	1.496	1.533	1.483	208	16,3%
Zaldibia	1.469	1.431	1.510	1.574	1.630	1.658	1.666	197	13,4%
Zegama	1.268	1.359	1.540	1.525	1.534	1.521	1.542	274	21,6%
Zerain	234	244	254	257	258	274	275	41	17,5%
Guztira	38.499	39.839	42.913	43.274	43.879	44.516	44.080	5.581	13,8%

Iturria: Ine: udal errolada ekitaldo bakoitzeko urtarrikak Iean

- **Lazkaoren** (%20,6), **Zegamaren** (%21,6), **Idiazabalen** (%15,7) eta **Seguraren** (%16,3) hazkundera nabarmena izan da azken hamabost urteetan. Baita Beasainena eta Ordiziarena ere, biztanle kopuru gehien haziz (1.766 eta 1.203 hurrenez hurren).
- Azken 2 urteetan, hala ere, herri gehienek (Gabiria, Gaintza, Lazkao, Olaberria eta Zaldibia izan ezik) biztanle galera jasan dute





# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.1 Demografia

### Biztanleria sexuaren arabera

	2015		2018		2022	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Altzaga	87	91	88	96	81	90
Arama	105	108	101	108	94	104
Ataun	872	802	892	831	858	818
Beasain	7.060	6.855	7.075	6.902	6.945	6.818
Gabiria	288	221	286	220	299	226
Gaintza	73	50	71	49	75	54
Idiazabal	1.188	1.148	1.202	1.177	1.188	1.143
Itsasondo	335	339	343	359	333	324
Lazkao	2.695	2.654	2.735	2.727	2.878	2.890
Legorreta	756	727	777	725	750	726
Mutiloa	138	116	139	112	128	115
Olaberría	490	445	468	437	482	443
Ordizia	4.691	4.792	4.744	4.976	4.936	5.074
Ormaiztegi	652	640	665	656	619	623
Segura	764	736	754	742	743	740
Zaldibia	828	746	831	799	852	814
Zegama	809	716	810	724	796	746
Zerain	120	137	119	139	127	148
<b>Goierri</b>	<b>21.951</b>	<b>21.323</b>	<b>22.100</b>	<b>21.779</b>	<b>22.184</b>	<b>21.896</b>
Goierri (%)	50,22%	48,79%	50,18%	49,46%	50,33%	49,67%
<b>Gipuzkoa</b>	<b>347.752</b>	<b>362.239</b>	<b>348.918</b>	<b>365.351</b>	<b>350.130</b>	<b>366.486</b>
Gipuzkoa (%)	48,98%	51,02%	48,85%	51,15%	48,86%	51,14%
<b>Euskadi</b>	<b>1.056.881</b>	<b>1.116.329</b>	<b>1.057.944</b>	<b>1.122.505</b>	<b>1.060.637</b>	<b>1.125.880</b>
Euskadi (%)	48,63%	51,37%	48,52%	51,48%	48,51%	51,49%

Iturria: Ine: udal erroldada ekitaldi bakoitzeko urtarriak lean



- Goierri biztanleria erdibanatuta dago **gizonak %50,33** izanik eta **emakumeak %49,67**. Gipuzkoan eta EAEn emakumeak gehiago dira.


# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.1 Demografia

### Biztanleria adinaren arabera

	2013			2016			2019			2022		
	>= 19	20-64	65 <=	>= 19	20-64	65 <=	>= 19	20-64	65 <=	>= 19	20-64	65 <=
Altzaga	45	93	27	53	90	30	60	93	35	48	92	31
Arama	58	119	43	50	114	46	45	118	39	42	115	41
Ataun	353	961	365	390	936	370	428	926	391	383	916	377
Beasain	2.834	8.478	2.440	2.949	8.319	2.595	3.017	8.186	2.766	2.881	7.959	2.923
Gabiria	108	297	106	111	288	108	110	293	103	95	319	111
Gaintza	21	74	26	22	72	28	22	68	29	22	80	27
Idiazabal	488	1.367	470	528	1.312	493	539	1.299	550	528	1.245	558
Itsasondo	162	375	131	159	373	125	165	419	134	147	396	114
Lazkao	1.157	3.261	954	1.181	3.253	992	1.221	3.306	1.022	1.268	3.431	1.069
Legorreta	287	933	314	306	848	331	304	840	345	306	850	320
Mutiloa	60	134	46	64	136	44	60	138	52	50	146	47
Olaberria	144	515	281	155	509	281	164	503	247	151	534	240
Ordizia	1.933	5.667	1.834	1.980	5.602	1.906	2.188	5.872	1.910	2.164	5.884	1.962
Ormaiztegi	277	803	219	279	772	249	289	722	284	277	680	285
Segura	318	904	262	342	876	280	352	883	288	349	825	309
Zaldibia	282	941	301	322	932	312	347	946	337	382	934	350
Zegama	288	979	272	304	928	289	347	892	293	357	869	316
Zerain	44	161	60	50	150	58	55	141	70	53	147	75
<b>Goierri</b>	<b>8.859</b>	<b>26.062</b>	<b>8.151</b>	<b>9.245</b>	<b>25.510</b>	<b>8.537</b>	<b>9.713</b>	<b>25.645</b>	<b>8.895</b>	<b>9.503</b>	<b>25.422</b>	<b>9.155</b>
Goierri (%)	20,37%	59,92%	18,74%	21,12%	58,26%	19,50%	21,86%	57,71%	20,02%	21,56%	57,67%	20,77%
<b>Gipuzkoa</b>	<b>133.004</b>	<b>432.381</b>	<b>142.506</b>	<b>136.401</b>	<b>422.936</b>	<b>151.362</b>	<b>137.676</b>	<b>420.544</b>	<b>158.977</b>	<b>133.722</b>	<b>417.633</b>	<b>165.261</b>
Gipuzkoa (%)	18,79%	61,08%	20,13%	19,19%	59,51%	21,30%	19,20%	58,64%	22,17%	18,66%	58,28%	23,06%
<b>Euskadi</b>	<b>387.782</b>	<b>1.351.051</b>	<b>440.116</b>	<b>396.028</b>	<b>1.310.684</b>	<b>465.174</b>	<b>401.766</b>	<b>1.299.513</b>	<b>486.738</b>	<b>392.372</b>	<b>1.287.549</b>	<b>506.596</b>
Euskadi (%)	17,80%	62,00%	20,20%	18,23%	60,35%	21,42%	18,36%	59,39%	22,25%	17,95%	58,89%	23,17%

Iturria: Ine: udal errolda ekitaldi bakoitzeko urtarrikak leen



- Goierriin **biztanleriaren gehiengoa (%57,67) adin heldukoa** da. Azken urteetan, hala ere, gutxitu egin da portzentai hori 20 urtez azpiko (+%1,19) eta 65 urtez gorakoen (+%2,03) mesedetan.
- Euskadi eta Gipuzkoan joera antzekoa da baina zahartzaroko jendearen tasa altuagoa da. Gipuzkoan Goierri baino % 2,31 altuagoa eta EAEn %2,4 altuagoa.

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA



## 02.1 Demografia

### Haurtzaro indize konparatiboa lurraldean eta udalerrika

	2010	2012	2014	2016	2018	2020	2022	2010-2022
Euskadi	13,29	13,75	14,03	14,16	14,09	13,68	13,18	-0,10
Gipuzkoa	14,07	14,49	14,67	14,73	14,59	14,10	14,28	0,21
Goierri	15,62	16,32	16,58	17,00	17,23	17,03	16,39	0,77
Altzaga	23,72	24,69	25,30	24,28	23,37	22,40	19,30	-4,42
Arama	19,63	19,00	19,55	18,10	15,79	15,20	13,13	-6,49
Ataun	15,96	17,68	18,85	19,58	19,44	18,78	17,42	1,46
Beasain	15,65	16,12	16,53	16,88	16,73	16,28	15,59	-0,06
Gabiria	16,63	15,64	16,18	15,78	15,02	12,28	11,05	-5,58
Gaintza	14,96	14,75	14,05	13,11	14,17	15,79	13,18	-1,78
Idiazabal	15,23	16,52	17,77	18,39	17,99	16,76	16,73	1,50
Itsasondo	17,76	19,67	19,19	19,33	16,52	17,86	16,59	-1,17
Lazkao	16,50	17,39	17,32	17,42	18,05	17,83	17,46	0,95
Legorreta	15,04	14,72	14,50	15,29	15,51	15,50	14,91	-0,14
Mutiloa	21,10	22,08	22,49	21,72	19,12	17,65	16,05	-5,05
Olaberria	12,03	12,65	12,63	12,91	14,14	13,20	11,24	-0,79
Ordizia	16,09	16,54	16,26	16,39	17,09	17,34	16,70	0,61
Ormaiztegi	15,97	16,81	17,20	17,00	17,18	17,32	16,51	0,54
Segura	14,82	16,54	16,70	18,29	18,18	18,33	18,95	4,13
Zaldibia	12,84	13,78	14,14	16,03	17,30	17,31	18,01	5,16
Zegama	12,85	14,31	15,41	17,62	19,10	19,99	18,74	5,89
Zerain	11,79	12,55	15,47	15,89	16,28	16,79	14,18	2,39

Iturria: Ine

- Goierriko **haurtzaro indizea %16,39**koa da, Gipuzkoan eta EAEn baino 2 eta 3 portzentai puntu altuagoa. Hala ere, EAEn eta Gipuzkoako joera jarraituz, azken 12 urteetan handitu den arren, jetsi egin da COVID-19aren pandemiaren geroztik.
- Herrien artean ezberdintasun handia dago.** Gabiriak eta Olaberriak dute indize baxuena (%11 inguru); eta Alzagak, Segurak eta Zegamak altuena (%18,75tik gora).
- Herrien bilakaera ere ezberdina izan da nahiz eta denek **maximoak 2016-2018 artean** aurkitu.



# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA



## 02.1 Demografia

### Zahartze tasa konparatiboa lurraldean eta udalerrika

	2010	2012	2014	2016	2018	2020	2022	'2010-2022
Euskadi	19,14	19,81	20,70	21,42	21,99	22,47	23,20	<b>4,06</b>
Gipuzkoa	18,97	19,77	20,61	21,30	21,91	22,43	23,10	<b>4,13</b>
Goierri	<b>18,04</b>	<b>18,54</b>	<b>19,29</b>	<b>19,72</b>	<b>20,03</b>	<b>20,23</b>	<b>20,77</b>	<b>2,73</b>
Altzaga	11,54	15,43	15,66	17,34	17,93	19,13	18,10	<b>6,56</b>
Arama	18,69	19,50	20,00	21,90	19,14	19,12	20,70	<b>2,01</b>
Ataun	21,33	21,62	21,79	21,82	22,93	22,72	22,50	<b>1,17</b>
Beasain	16,60	17,24	18,22	18,72	19,57	20,06	21,20	<b>4,60</b>
Gabiria	19,30	19,80	20,27	21,30	19,17	20,66	21,10	<b>1,80</b>
Gaintza	20,47	21,31	23,14	22,95	24,17	21,93	20,90	<b>0,43</b>
Idiazabal	19,58	19,92	20,59	21,13	22,57	22,94	23,90	<b>4,32</b>
Itsasondo	18,84	18,79	19,04	19,03	18,95	17,31	17,40	<b>-1,44</b>
Lazkao	16,96	17,47	17,92	18,28	18,78	18,61	18,50	<b>1,54</b>
Legorreta	19,14	20,46	20,46	22,29	22,84	22,75	21,70	<b>2,56</b>
Mutiloa	19,41	19,58	19,68	18,03	19,12	21,18	19,30	<b>-0,11</b>
Olaberria	28,57	29,12	28,81	29,74	27,85	25,85	25,90	<b>-2,67</b>
Ordizia	18,29	18,86	20,01	20,09	19,38	19,23	19,60	<b>1,31</b>
Ormaiztegi	15,51	16,03	17,58	19,15	20,06	22,10	22,90	<b>7,39</b>
Segura	18,88	18,02	18,44	18,69	19,18	19,24	20,80	<b>1,92</b>
Zaldibia	20,00	19,91	19,60	19,92	20,18	21,11	21,00	<b>1,00</b>
Zegama	18,00	18,02	18,42	19,00	19,10	19,66	20,50	<b>2,50</b>
Zerain	21,14	22,43	22,64	22,48	24,81	28,10	27,30	<b>6,16</b>

Iturria: Ine

- Goierriko **zahartze indizea %20.77**koa da, Gipuzkoa eta EAEn baino 3 portzentai puntu baxuagoa. Hala ere, EAEko eta Gipuzkoako joera jarraituz, azken 12 urteetan handitu egin da.
- Herrien artean ezberdintasun handia dago.** Zerain eta Olaberriak dute indize altuena (>%25) eta Altzagak, Itsasondok eta Lazkaok baxuena (%19tik behera).
- Herrien bilakaera ere ezberdina** izan da. Itsasondok, Mutiloak eta Olaberriak dute bilakaera negatiboa soilik.




# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.1 Demografia

Jaiotzak urteko lurraldean, eskualdean eta udalerrietan

	2010	2012	2014	2016	2018	2020	2021
Euskadi	21.159	20.533	19.378	18.240	16.090	14.739	14.257
Gipuzkoa	7.215	6.898	6.361	6.015	5.467	5.024	4.932
Goierri	538	516	434	478	425	368	357
Altzaga	1	2	2	4	1	1	1
Arama	2	2	0	2	2	1	1
Ataun	28	23	19	23	16	9	10
Beasain	164	164	148	138	138	106	103
Gabiria	6	5	4	7	3	4	3
Gaintza	3	1	2	0	1	0	0
Idiazabal	40	35	27	30	17	17	12
Itsasondo	15	8	11	6	11	11	3
Lazkao	72	65	38	53	43	55	48
Legorreta	18	16	16	12	8	12	14
Mutiloa	1	7	4	3	3	2	1
Olaberria	9	7	7	3	11	5	5
Ordizia	97	100	84	120	105	92	102
Ormaiztegi	13	19	13	16	9	8	12
Segura	28	22	18	13	15	9	15
Zaldibia	16	14	19	21	20	23	16
Zegama	21	23	20	24	20	12	10
Zerain	4	3	2	3	2	1	1

Iturria: Ine



- **357 jaiotza izan ziren Goierri 2021 urtean**, azken urteetako zifra baxuena, **2010tik %34 jetsiz**. Gipuzkoan eta EAEn joera antzerakoa da. Joera argia da gizartean, geroz eta jaiotza gutxiago daude.
- **Ordizian soilik mantendu da jaiotza kantitatea**. Aramna, Ataunen, Zegaman eta Gabirian erdira jetsi da 10 urteetan, Idiazabalen laurdenera eta Itsasondon bost aldiz jetsi da.


# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.1 Demografia

Heriotzak urteko lurraldean, eskualdean eta udalerrietan

	2010	2012	2014	2016	2018	2020	2021
Euskadi	19.357	20.281	20.157	21.223	21.745	24.247	23.073
Gipuzkoa	6.130	6.514	6.525	6.776	7.032	7.738	7.617
Goierri	347	345	390	415	441	445	445
Altzaga	0	2	1	0	2	0	2
Arama	5	0	2	0	3	4	1
Ataun	20	16	13	17	17	19	24
Beasain	103	115	121	106	139	121	125
Gabiria	6	6	0	4	7	8	7
Gaintza	1	2	1	0	3	2	3
Idiazabal	17	20	17	19	19	27	21
Itsasondo	2	3	4	7	10	3	8
Lazkao	36	29	47	61	64	53	66
Legorreta	10	11	10	15	11	20	17
Mutiloa	5	2	1	2	1	5	2
Olaberría	9	7	9	13	9	12	12
Ordizia	73	80	108	108	94	114	87
Ormaiztegi	14	5	7	12	14	14	14
Segura	16	11	19	15	18	11	20
Zaldibia	19	18	12	17	16	20	12
Zegama	10	14	14	16	14	12	19
Zerain	1	4	4	3	0	0	5

Iturria: Ine



- **445 heriotza eman ziren 2021an Goierriin.** EAEko eta Gipuzkoako joera jarraituz handitu egin da zifra hau azken 10 urteetan: %19 Euskadin, %24 Gipuzkoan eta %28 Goierriin. 2020 urteko zifrak azpimarratu behar dira, COVID-19aren ondorioz haunditze nabarmena baitago.
- Ormaiztegi eta Zaldibia izan dira azken 10 urteetan heriotza kantitatea mantendu duten bakarrak, beste herri guztietan hazi egin da.


# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.1 Demografia

Hazkunde begetatiboaren bilakaera eskualdean eta udalerrika

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Goierri	191	141	171	75	44	22	10	12	-16	3	-77	-88
Guipúzcoa	1.085	763	384	-98	-164	-571	-761	-1.413	-1.565	-1.729	-2.714	-2.685
Altzaga	1	6	0	3	1	0	1	0	-1	-2	1	-1
Arama	-3	0	2	0	-2	2	2	-2	-1	1	-3	0
Ataun	8	6	7	9	6	-3	-1	-2	-1	-12	-10	-14
Beasain	61	46	49	45	27	32	32	20	-1	-10	-15	-22
Gabiria	0	1	-1	0	4	3	-1	-7	-4	1	-4	-4
Gaintza	2	0	-1	0	1	0	1	0	-2	-1	-2	-3
Idiazabal	23	14	15	15	10	2	-2	2	-2	1	-10	-9
Itsasondo	13	6	5	-3	7	0	4	6	1	1	8	-5
Lazkao	36	10	36	-9	-9	-3	-18	-6	-21	-1	2	-18
Legorreta	8	8	5	-9	6	4	-7	-8	-3	-7	-8	-3
Mutiloa	-4	4	5	2	3	-2	1	-1	2	1	-3	-1
Olaberría	0	-3	0	3	-2	-10	-2	7	2	-14	-7	-7
Ordizia	24	9	20	-7	-24	-19	-3	6	11	37	-22	15
Ormaiztegi	-1	18	14	7	6	2	-3	-4	-5	0	-6	-2
Segura	12	-1	11	6	-1	6	0	-3	-3	-3	-2	-5
Zaldibia	-3	7	-4	6	7	6	3	3	4	12	3	4
Zegama	11	7	9	6	6	2	4	1	6	-4	0	-9
Zerain	3	3	-1	1	-2	0	-1	0	2	3	1	-4

Iturria: Ine



- **Hazkunde begetatiboa nabarmen jetsi da** azken 3 urteetan. Joera positiboa negatibo bihurtu da eskualdean 2018az geroztik. Zaldibia da zenbaki positiboak mantentzen dituen bakarra. **2020an 77 pertsona gehiago hil ziren jaio baino** eta **2021an 88**. Hazkunde negatibo honen arrazoi nagusia jaiotza tasaren beherakada izan da.

- **Ordezkapen-indizea** (20-29 biztanleria/55-64 biztanleria) nabarmen ari da jaisten, % 100 baino gutxiago izanik 2010aren ondoren.

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA


## 02.1 Demografia

### Migrazio mugimenduen bilakaera eskualdean

- Migratzaile mugimenduei dagokienez, kanpo migrazio bezela hartzen da autonomia erkidegotik kanpora joaten diren Goierriko pertsonen eta kanpotik bertara etortzen direnen arteko aldea. Barne migrazio bezela hartzen da eskualdetik kanpora Autonomi Erkidegoko beste herri batera ateratzen den Goierriko pertsonen eta Autonomi Erkidegoko beste herrietatik eskualdera datozen pertsonen aldea.
- Lehenengo nabarmendu, **migrazio kitapena negatiboa izan dela azken urtean** nahiz eta **2017tik 2020ra positiboa izan..** Azken urteko jetsiera COVID-19ko neurri murriztaileen ondorioa da, baina joera geroz eta kanpo migrazio altuagoa izango da.

	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Kanpoko migrazio-saldoa	229	371	186	63	153	86	114	154	236	411	349	152	-138
Barneko migrazio-saldoa	108	94	18	-22	-120	6	-95	-160	-13	3	-86	86	7
Migrazio-saldo osoa	337	465	204	41	33	92	19	-6	223	414	263	238	-131

Iturria: Eustat





# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA



## 02.1 Demografia

### Atzerritar biztanleria kopurua eskualdean

Balio Absolutuak	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Euskadi	139.369	145.256	151.894	148.877	141.316	137.816	139.425	143.036	151.519	163.808	180.252	183.014
Gipuzkoa	42.449	44.179	46.132	46.684	46.464	46.464	46.548	48.652	51.234	55.295	60.285	60.978
Goierri	3.944	4.097	4.220	4.193	4.192	4.287	4.469	4.535	4.780	5.236	5.676	5.850
Ehunekoa %	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
Euskadi	6,43%	6,68%	6,96%	6,83%	6,50%	6,34%	6,42%	6,57%	6,95%	7,49%	8,19%	8,34%
Gipuzkoa	6,06%	6,29%	6,54%	6,59%	6,56%	6,54%	6,55%	6,83%	7,17%	7,71%	8,37%	8,48%
Goierri	9,15%	9,45%	9,70%	9,64%	9,62%	9,81%	10,21%	10,35%	10,85%	11,78%	12,75%	13,20%

Iturria: Eustat

- Goierri **atzerritar biztanleria %13,2koa da**, Gipuzkoan eta EAEn baino %5 altuagoa.
- Azken 5 urteetan nabarmen igo da Goierri** kanpotar kopurua eta areagotu egin da lurralde eta erkidegoarekiko




# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.1 Demografia


### Jatorria kontutan hartuta atzerritar kopurua eskualdean

Balio Absolutuak	2010	2012	2014	2016	2018	2020	2021	2022
Europa Batasuna	2.354	2.572	2.384	2.448	2.604	3.068	3.116	3.116
Gainerako Europako Herrialdera	57	54	42	63	58	70	93	87
Afrika	554	638	688	826	1.015	1.216	1.261	1.242
Amerika	857	797	645	618	667	857	904	941
Asia	118	156	427	501	423	447	452	440
Ozeania	4	3	6	13	13	18	24	23
Ehunekoak	2010	2012	2014	2016	2018	2020	2021	2022
Europa Batasuna	60%	61%	57%	55%	54%	54%	53%	53%
Gainerako Europako Herrialdera	1%	1%	1%	1%	1%	1%	2%	1%
Afrika	14%	15%	16%	18%	21%	21%	22%	21%
Amerika	22%	19%	15%	14%	14%	15%	15%	16%
Asia	3%	4%	10%	11%	9%	8%	8%	8%
Ozeania	0%	0%	0%	0%	0%	0%	0%	0%

- Eskualdeko atzerritarren gehiegia **Europar Batasunetik** dator, erdia baino gehiago (**%53**). Ondoren **Afrika (%21)**, **Amerika (%16)** eta **Asia (%8)** dira atzerritar gehieneko jatorria.
- Atzerritarren jatorria mantendu egin da eskualdean orokorrean. Asiatarren eta Afrikarren portzentaiaren igoera xamurra nabarmendu daiteke.



Iturria: Eustat



- Europa Batasuna
- Gainerako Europako Herrialdera
- Afrika
- Amerika
- Asia
- Ozeania


# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.1 Demografia

Atzerritar kopuruaren eboluzioa eskualdean eta herrian

Balio Absolutuak	2010	2012	2014	2016	2018	2020	2021	2022
Goierri	3.944	4.220	4.192	4.469	4.780	5.676	5.850	5.849
Altzaga	4	3	5	3	2	7	8	9
Arama	18	13	19	17	15	20	19	20
Ataun	64	60	64	81	83	98	110	97
Beasain	1.375	1.499	1.524	1.686	1.664	1.882	1.900	1.902
Gabiria	27	16	13	7	13	21	29	31
Gaintza	1	3	3	4	4	5	6	6
Idiazabal	113	118	129	126	129	113	132	128
Itsasondo	43	53	59	55	41	85	88	81
Lazkao	350	400	408	444	529	649	753	749
Legorreta	122	109	130	101	100	149	166	163
Mutiloa	0	0	2	0	0	2	1	4
Olaberria	62	42	56	51	56	79	86	86
Ordizia	1.249	1.342	1.247	1.354	1.612	1.994	1.972	1.987
Ormaiztegi	117	105	106	126	117	88	85	87
Segura	100	129	120	109	101	121	109	97
Zaldibia	132	146	161	186	208	232	245	262
Zegama	164	168	130	106	100	119	131	131
Zerain	4	14	16	13	6	12	10	9

Iturria: Eustat



- Atzerritar kopuruak gora egin du herri gehienetan **Itsasondon, Ordizian, Lazkaon eta Zaldibian** batez ere. Joera nabarmena da, geroz eta atzerritar gehiago daude eskualdean, eta bertako biztanleriaren mantentzearekin portzentaia nabarmen ari da igotzen. Bigarren belaunaldiko atzerritar biztanleria ere goraka ari da, migratzaile askok bertan izan baituzte umeak.
- Nabarmenezkoa da Ordiziako kantitatea, ia 2.000 atzerritar baitaude, %59 igoz 2010az geroztik.

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA


## 02.1 Demografia

### Atzerritar kopurua herrian

Atzerritar kopurua eskualdean (2021)	Europa Batasuna	Gainerako Europako Herrialdera	Afrika	Amerika	Asia	Guztira	% Biztale kop. guztira
<b>Goierri</b>	<b>3.116</b>	<b>93</b>	<b>1.261</b>	<b>904</b>	<b>452</b>	<b>5.826</b>	<b>13,2%</b>
Ordizia	1.084	21	420	278	157	<b>1.960</b>	18,9%
Zaldibia	110	2	83	29	21	<b>245</b>	15,0%
Beasain	1.136	27	316	268	149	<b>1.896</b>	13,6%
Itsasondo	15	1	48	23	0	<b>87</b>	13,4%
Lazkao	463	18	131	114	27	<b>753</b>	12,5%
Legorreta	37	5	49	28	43	<b>162</b>	11,5%
Arama	9	0	0	7	3	<b>19</b>	9,5%
Olaberria	56	1	13	15	0	<b>85</b>	9,2%
Zegama	62	7	25	34	3	<b>131</b>	8,5%
Segura	34	1	39	13	21	<b>108</b>	7,5%
Ormaiztegi	19	2	47	16	1	<b>85</b>	6,8%
Ataun	34	2	29	36	9	<b>110</b>	6,5%
Idiazabal	40	3	53	25	11	<b>132</b>	5,8%
Gabiria	10	1	2	9	6	<b>28</b>	5,8%
Altzaga	1	1	0	6	0	<b>8</b>	5%
Gaintza	4	0	1	1	0	<b>6</b>	4,8%
Zerain	2	0	5	2	1	<b>10</b>	3,6%
Mutiloa	0	1	0	0	0	<b>1</b>	0,4%

Iturria: Eustat


- **Ordiziako atzerritarren presentzia** nabarmena da, biztanleriaren %18,9 suposatzen baitu.
- Ordizian, Zaldibian, Beasainen eta Itsasondon lurraldeko batzbestekoa baina atzerritar gehiago daude.
- 2019arekin alderatuz, **herri gehienetan handitu da portzentaia.**



## 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

### 02.1 Demografia

Heziketa mailaren konparatiboa eskualdean eta beste lurraldeetan (%)



2011	Alfabetugabeak	ikasketarik gabek	Eskolaurrea eta lehen mailakoak	Lanbide-heziketa	Bigarren hezkuntza	Erdi- edo goi-mailakoak	Goi-mailakoak
Euskadi	0,48%	2,66%	35,39%	16,49%	20,91%	8,26%	15,81%
Gipuzkoa	0,49%	2,58%	35,32%	17,59%	20,73%	8,14%	15,15%
Goierri	<b>0,77%</b>	<b>4,94%</b>	<b>35,87%</b>	<b>19,66%</b>	<b>18,81%</b>	<b>7,89%</b>	<b>12,05%</b>
2016	Alfabetugabeak	ikasketarik gabek	Eskolaurrea eta lehen mailakoak	Lanbide-heziketa	Bigarren hezkuntza	Erdi- edo goi-mailakoak	Goi-mailakoak
Euskadi	0,36%	2,16%	32,56%	17,88%	21,78%	7,63%	17,63%
Gipuzkoa	0,36%	2,11%	32,45%	18,96%	21,55%	7,42%	17,16%
Goierri	<b>0,56%</b>	<b>4,03%</b>	<b>33,33%</b>	<b>21,14%</b>	<b>19,66%</b>	<b>7,10%</b>	<b>14,18%</b>
2021	Alfabetugabeak	ikasketarik gabek	Eskolaurrea eta lehen mailakoak	Lanbide-heziketa	Bigarren hezkuntza	Erdi- edo goi-mailakoak	Goi-mailakoak
Euskadi	0,27%	1,98%	29,26%	20,01%	21,82%	6,78%	19,89%
Gipuzkoa	0,27%	1,93%	29,11%	21,06%	21,53%	6,57%	19,54%
Goierri	<b>0,37%</b>	<b>2,83%</b>	<b>32,14%</b>	<b>22,28%</b>	<b>20,60%</b>	<b>6,06%</b>	<b>15,72%</b>


Iturria: Eustat

- Goierri heziketa maila kaskarragoak du batzbestekoa baino. **Lehen hezkuntzako eta behe mailako ikasketen** aldetik, bere tasa **%35,34**-koa da, **Gipuzkoan %31,31** delarik eta **EAEn % 31,51**. **Goierri Lanbide heziketan** bakarrik aurkitzen da batzbestekoaren gainetik (haur eskola eta lehen mailakoez gain). Lanbide heziketaren indarra eskualdeko enpresa sarearen ondorio da, industriaren garrantziaren ondorio.
- Nabarmetzen da **Goierri %15,72ak** bakarrik dituela **goi-mailako ikasketak**, **Gipuzkoan %19,54** eta **EAEn %19,89**.

## 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

### 02.2 Gizartea eta ekonomia

Bataz besteko errenta lurraldean eta eskualdean



	2003	2006	2009	2011	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Euskadi	13.647	17.362	19.631	19.715	19.286	19.379	19.968	20.443	21.083	21.458	22.548	22.343
Gipuzkoa	13.892	17.488	20.270	20.396	19.734	19.880	20.669	21.714	22.086	22.605	23.756	23.512
Goierri*	14.271	17.336	20.702	21.267	21.211	21.169	22.099	23.087	23.293	24.029	23.847	23.826

Iturria: Eustat (\* berezko balioeztapena udaletxearen datuak oinarritzat hartuta)

- Pertsonen batezbesteko **errenta lurraldeko eta EAE-koaren batezbestekoaren gainetik dago. 2001 urtez geroztik bilakaera oso berdintsua izan da hiru kasuetan.** Tamaina honek bakoitzaren aberastasun banaketa ezagutzen laguntzen digu, 18 urte edo gehiagoko pertsonen errenta kontutan hartzen baitu.
- 2018az geroztik, COVID-19aren eraginez errenta jetsi egin da bai EAEn, bai Gipuzkoan, bai Goierriin.
- Batez besteko pertsonen errenta Goierriin %12 igo da 2011az geroztik, Gipuzkoan %15 eta Euskadin %13.

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA


## 02.2 Gizartea eta ekonomia

### Bataz besteko errenta herriko (2003-2020)

- Bataz besteko errenta maila altua da eskualdean. Soilik lau udalerrri daude Gipuzkoako errenta mailaren azpitik: **Altzaga, Itsasondo, Legorreta** eta **Ordizia**.
- Ormaiztegi** Goierriko mailaren azpitik dago eta gainerako herriek 24.000 €/urteko gaingitzen dute.

	2003	2006	2011	2014	2016	2018	2020
Euskadi	13.647	17.362	19.715	19.379	20.443	21.458	22.343
Gipuzkoa	13.892	17.488	20.396	19.880	21.714	22.605	23.512
Goierri*	14.271	17.336	21.267	21.169	23.087	24.029	23.826
Altzaga	14.286	16.577	21.184	20.767	22.029	21.865	21.767
Arama	13.868	17.403	27.309	26.847	29.356	27.337	26.779
Ataun	14.037	14.444	21.512	21.569	22.594	24.215	24.835
Beasain	14.732	18.177	21.969	21.316	24.179	25.763	24.952
Gabiria	13.552	16.722	23.178	23.657	25.703	26.217	25.106
Gaintza	14.926	18.335	20.820	20.766	20.694	23.452	26.870
Idiazabal	15.040	16.844	23.711	23.912	25.546	25.257	28.011
Itsasondo	12.749	16.074	19.201	19.006	19.647	20.097	21.283
Lazkao	14.224	17.296	20.916	21.075	22.433	23.501	24.981
Legorreta	13.199	15.742	20.572	19.529	20.518	20.978	22.026
Mutiloa	14.438	18.394	22.370	23.267	26.500	27.889	26.639
Olaberria	14.312	19.369	21.750	21.035	22.558	23.413	24.734
Ordizia	14.128	17.271	20.197	20.355	21.639	22.157	23.068
Ormaiztegi	15.586	18.902	22.588	22.043	24.737	24.235	23.605
Segura	13.736	16.061	21.176	21.843	23.792	25.969	28.447
Zaldibia	12.926	16.359	19.918	20.652	22.200	22.266	23.866
Zegama	12.702	15.325	18.862	20.252	22.455	23.289	25.409
Zerain	15.736	20.115	23.506	23.451	25.027	27.632	28.524

Iturria: Eustat (\* berezko balioeztapena udaletxearen datuak oinarritzat hartuta)




# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.2 Gizartea eta ekonomia

### BPG per kapita udalerrrika

	2005	2008	2010	2012	2014	2016	2018	2020
Altzaga	10.213	8.363	10.401	10.591	11.434	10.860	11.161	12.379
Arama	79.663	68.495	49.058	53.548	46.323	155.744	164.951	169.468
Ataun	11.884	12.717	11.534	10.451	9.623	11.793	11.973	11.314
Beasain	34.386	61.136	50.422	51.761	43.985	45.388	62.076	57.533
Gabiria	34.292	31.796	22.771	20.244	21.758	22.246	23.941	20.131
Gaintza	18.542	16.569	12.063	15.293	13.934	13.592	14.033	12.861
Idiazabal	51.604	71.704	55.353	47.559	57.886	56.377	49.041	50.324
Itsasondo	43.322	46.495	41.697	38.318	30.839	34.650	31.046	40.809
Lazkao	21.160	25.529	19.853	23.414	19.416	21.257	26.606	22.950
Legorreta	27.590	26.365	31.895	28.472	27.859	31.659	32.866	31.818
Mutiloa	16.844	14.543	19.542	13.384	12.486	13.944	22.315	21.056
Olaberria	265.690	218.063	172.876	177.267	192.218	253.001	274.922	256.140
Ordizia	20.397	22.547	24.358	25.906	24.092	22.695	23.041	22.126
Ormaiztegi	87.601	84.180	76.795	80.320	80.037	108.828	123.265	80.389
Segura	16.760	19.940	13.035	14.345	13.070	15.240	14.001	12.748
Zaldibia	16.314	19.360	15.468	15.477	18.754	19.569	18.491	17.243
Zegama	17.623	18.066	12.197	13.870	14.520	17.058	19.438	16.431
Zerain	17.712	19.436	18.724	28.049	21.528	26.605	21.798	22.134

Iturria: Eustat




- 2020 urtean eskualdeko **BPG-ren per capita errenta** (udalerrri bakoitzeko BPG per capita biztanleri kantitateari haztatuta) **Gipuzkoako eta Euskadiko datuak baino askoz handiagoa da** ohiko prezioetan; **41.064 €** izanik Gipuzkoako 34.237 € eta Euskadiko 33.835 €en aurrean.
- Azterketa hau udalerrrika egiten bada, emaitza nahiko desberdinak lortzen dira, ezberdintasun handia baitago herrien artean bertan kokatutako enpresen eraginez.




# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.2 Gizartea eta ekonomia

### Etxebizitzak herriko eta 50 urte baino gehiagoko etxebizitzaren ehunekoa



Goierriko etxebizitza guztien banaketa



- Azken urteetan **etxebizitza gutxiago eraiki dira** eta horrek etxe zaharren portzentaia handitu du. Goierri eta EAEn joera oso berdintsua da.
- Nabarmena da 2015 eta 2020 arteko portzentaiaren gorakada. Etxebizitza gehienak 1955-1960 urtean eraiki zirenen seinale.


	2013		2016		2019		2021	
	Etxebizitzak	% (>50 urte)	Etxebizitzak	% (>50 urte)	Etxebizitzak	% (>50 urte)	Etxebizitzak	% (>50 urte)
Goierri	20.787	23	21.217	26,4	21.419	35,3	21.679	37,3
Altzaga	72	38,9	72	40,8	70	42,9	70	42,0
Arama	84	23,8	83	25,3	83	27,7	82	26,8
Ataun	857	27,5	892	28,4	898	31,8	886	37,0
Beasain	6.241	20,9	6.378	23,7	6.433	32,4	6.607	32,5
Gabiria	246	32,5	245	33,9	252	38,5	259	39,5
Gaintza	74	18,9	79	20,3	79	24,1	79	24,1
Idiazabal	1.322	27,3	1.292	30	1.280	36,9	1.219	38,1
Itsasondo	324	35,8	330	40	331	45,9	332	45,8
Lazkao	2.375	16,2	2.490	15,7	2.588	27,5	2.711	29,8
Legorreta	711	23,8	712	32,4	717	42,7	724	44,2
Mutiloa	150	30,7	153	34,6	151	38,4	153	38,4
Olaberria	564	44	552	45,7	541	63,0	533	68,0
Ordizia	4526	22,9	4723	30,7	4770	41,2	4768	42,7
Ormaiztegi	615	21,8	620	20,6	616	27,6	613	35,1
Segura	730	12,8	722	16,4	735	20,6	743	21,1
Zaldibia	901	23,9	882	25,1	867	32,6	868	41,7
Zegama	841	32	838	34,8	854	42,8	870	50,9
Zerain	154	19,5	154	22,7	154	29,2	162	32,3
Euskadi	1.027.751	23,4	1.045.061	28	1.060.530	35,3	1.075.076	37,6

Iturria: INE

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.2 Gizartea eta ekonomia

### Bigarren etxebizitzak herriko



	2013	2015	2018	2021
Goierri	4.064	4.036	4.112	4154
Altzaga	15	16	10	13
Arama	13	12	12	12
Ataun	215	225	272	256
Beasain	929	966	951	1083
Gabiria	86	84	88	85
Gaintza	26	33	30	30
Idiazabal	435	400	401	349
Itsasondo	65	68	78	79
Lazkao	293	285	319	376
Legorreta	138	135	147	150
Mutiloa	52	50	52	45
Olaberria	190	175	153	142
Ordizia	701	703	748	668
Ormaiztegi	120	105	101	112
Segura	188	164	177	186
Zaldibia	308	327	256	248
Zegama	237	234	262	268
Zerain	53	54	55	52
Euskadi	156.391	157.104	155.341	160.135

Fuente: INE

- **Bigarren etxebizitzek gora egin dute** azken urteetan Goierriin. Eskualdeko portzentaia (%19,15) Euskadikoa (%15) baino dezente altuagoa da.
- Herrien arabera ezberintasun handia dago, **herri txikiak** (Ataun, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Mutiloa, Olaberria, Zaldibia, Zegama eta Zerain) **%25aren gainerik kokatuz.**

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA



## 02.2 Gizartea eta ekonomia

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak sexuaren arabera

	2020ko Urtarrila			2022ko Iraila						
	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira				
Euskadi	30.604	58%	21.739	42%	52.343	27.834	57%	21.218	43%	49.052
Gipuzkoa	7.292	59%	5.140	41%	12.432	6.555	56%	5.105	44%	11.660
Goierri	237	51%	231	49%	468	220	47%	253	53%	473
Ataun	5	31%	11	69%	16	3	25%	9	75%	12
Beasain	73	52%	67	48%	140	67	53%	59	47%	126
Idiazabal	7	50%	7	50%	14	6	50%	6	50%	12
Itsasondo	4	36%	7	64%	11	11	69%	5	31%	16
Lazkao	22	71%	9	29%	31	19	46%	22	54%	41
Legorreta	12	67%	6	33%	18	7	35%	13	65%	20
Ordizia	85	49%	88	51%	173	82	44%	103	56%	185
Ormaiztegi	7	41%	10	59%	17	11	79%	3	21%	14
Segura	5	45%	6	55%	11	5	83%	1	17%	6
Zegama	3	33%	6	67%	9	5	42%	7	58%	12

Iturria: Lanbide

- Nabarmen ikusten da **COVID-19aren krisiaren eragina**, 2020an balore altuenak ikusiz eta pixkanaka gutxituz.
- 2020az geroztik apur bat gutxitu dira diru sarrera bermatzeko onuradunak baina **sexuaren arteko banaketa mantendu egin da**.
- Goierriin gizonezko onuradun gehiago dago emakumeak baino (%47-%53), EAEko eta Gipuzkoako joeraren aurka.




# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.2 Gizartea eta ekonomia

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak adinaren arabera

	2020ko Urtarrila						2022ko Iraila					
	16-24	25-34	35-44	45-54	55-64	+65	16-24	25-34	35-44	45-54	55-64	+65
Euskadi	933	6.998	13.100	12.738	9.329	9.245	842	6.425	10.851	11.734	9.934	9.181
Gipuzkoa	231	1.656	2.905	2.888	2.164	2.588	224	1.514	2.475	2.569	2.356	2.505
Goierri	11	67	137	104	83	66	14	66	120	111	83	79
Beasain	3	20	31	33	28	25	3	16	25	28	25	29
Ordizia	3	31	62	31	27	19	3	29	55	46	25	27
Euskadi	1,8%	13,4%	25,0%	24,3%	17,8%	17,7%	1,6%	11,9%	20,1%	21,8%	18,4%	17,0%
Gipuzkoa	1,9%	13,3%	23,4%	23,2%	17,4%	20,8%	1,7%	11,6%	18,9%	19,6%	18,0%	19,2%
Goierri	2,4%	14,3%	29,3%	22,2%	17,7%	14,1%	<b>2,7%</b>	<b>12,7%</b>	<b>23,1%</b>	<b>21,3%</b>	<b>16,0%</b>	<b>15,2%</b>
Beasain	2,1%	14,3%	22,1%	23,6%	20,0%	17,9%	1,9%	10,3%	16,0%	17,9%	16,0%	18,6%
Ordizia	1,7%	17,9%	35,8%	17,9%	15,6%	11,0%	1,6%	15,8%	30,1%	25,1%	13,7%	14,8%

Iturria: Lanbide



- Adin tarteari erreparaturik gero ikus dezakegu 44 urtetik beherako hartzaileen ehunekoa (% 38,5) handiagoa dela Goierriin Gipuzkoan (% 31,2) eta Euskadin (% 33,6) baino.
- **Gehiengoa 35 eta 55 urte bitarteko biztanleria da**, Goierri, EAE eta Gipuzkoan. Hau da, adin helduan dagoen biztanleria-

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.2 Gizartea eta ekonomia


Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak ikasketen arabera

	2020ko Urtarrila					2022ko Iraila				
	Oinarrizkoak	Batxilerra	LH	Unibertsitate-koak	Zehaztu gabe	Oinarrizkoak	Batxilerra	LH	Unibertsitate-koak	Zehaztu gabe
Euskadi	36.309	4.194	5.280	2.078	4.482	33.276	3.941	4.943	2.095	4.798
Gipuzkoa	8.288	1.060	1.418	501	1.165	7.744	1.020	1.314	528	1.055
Goierri	362	25	27	11	43	365	31	26	15	36
Beasain	107	5	9	2	17	92	8	12	4	10
Ordizia	141	9	6	4	13	148	11	5	5	16
Euskadi	69,4%	8,0%	10,1%	4,0%	8,6%	61,7%	7,3%	9,2%	3,9%	8,9%
Gipuzkoa	66,7%	8,5%	11,4%	4,0%	9,4%	59,2%	7,8%	10,0%	4,0%	8,1%
Goierri	77,4%	5,3%	5,8%	2,4%	9,2%	<b>70,2%</b>	<b>6,0%</b>	<b>5,0%</b>	<b>2,9%</b>	<b>6,9%</b>
Beasain	76,4%	3,6%	6,4%	1,4%	12,1%	59,0%	5,1%	7,7%	2,6%	6,4%
Ordizia	81,5%	5,2%	3,5%	2,3%	7,5%	80,9%	6,0%	2,7%	2,7%	8,7%

Iturria: Lanbide

	Oinarrizko ikasketak	% guztira
Ataun	9	<b>75,0%</b>
Beasain	92	<b>73,0%</b>
Idiazabal	8	<b>66,7%</b>
Itsasondo	12	<b>75,0%</b>
Lazkao	29	<b>70,7%</b>
Legorreta	18	<b>90,0%</b>
Ordizia	184	<b>99,5%</b>
Ormaiztegi	13	<b>92,9%</b>
Segura	4	<b>66,7%</b>
Zegama	8	<b>66,7%</b>

Iturria: Lanbide



- Covid-19aren krisiaren ondoren emandako **RGIaren onuradunen gorakada jetsi egin da** baina **ikasketen arteko banaketa mantendu egin da**. Goierri **oinarrizko ikasketak soilik dituztenen ehunekoa handiagoa** da EAEn eta Gipuzkoan baino, nahiz pixkanaka murrizten ari den.

- Diru sarrerak bermatzeko errentadunen artean. **Oinarrizko ikasketak soilik dituztenen ehunekoa jetsi egin da** azken bi urteetan. **Ordiziako** datuak azpimarragarriak dira. Azken bi urteetan 43 errentadun gehitu dira eta ia denek (%99,5) oinarrizko ikasketak soilik dituzte.


# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.2 Gizartea eta ekonomia

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak jatorriaren arabera

	2020ko Urtarrila				2022ko Iraila			
	Atzerritarrak		Estatu Espainiarra		Atzerritarrak		Estatu Espainiarra	
Euskadi	20.756	39,7%	31.587	60,3%	15.577	31,8%	33.476	68,2%
Gipuzkoa	5.005	40,3%	7.427	59,7%	3.790	32,5%	7.871	67,5%
Goierri	263	56,2%	205	43,8%	231	50,0%	231	50,0%
Ataun	<5	18,8%	13	81,3%	<5	8,3%	11	91,7%
Beasain	74	52,9%	66	47,1%	46	36,5%	80	63,5%
Idiazabal	<5	28,6%	10	71,4%	5	41,7%	7	58,3%
Itsasondo	6	54,5%	5	45,5%	11	68,8%	5	31,3%
Lazkao	15	48,4%	16	51,6%	20	48,8%	21	51,2%
Legorreta	10	55,6%	8	44,4%	8	40,0%	12	60,0%
Ordizia	116	67,1%	57	32,9%	113	61,1%	72	38,9%
Ormaiztegi	8	47,1%	9	52,9%	9	64,3%	5	35,7%
Segura	6	54,5%	5	45,5%	<5	16,7%	5	83,3%
Zaldibia	11	61,1%	7	38,9%	10	55,6%	8	44,4%
Zegama	5	55,6%	<5	44,4%	7	58,3%	5	41,7%

Iturria: Lanbide



- **Goierri** diru sarrerak bermatzeko errentaren onuradunen erdia atzerritarra da, ez ordea Gipuzkoan eta Euskadin. Datu hau biztanleriaren portzentaiarekin alderatu behar da, Goierri atzerritar biztanleriak pisu gehiago baitu Euskadin ala Gipuzkoan baino.
- **Ordiziako** datuak azpimarragarriak dira berriro ere, errenta onuradunen bi heren baitira atzerritarrak (atzerritar biztanleria gehiena duen herria izanik). Bestalde, herrien artean ezberdintasun handia dago.


# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.2 Gizartea eta ekonomia

### Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun atzerritarren eboluzioa

	2020ko Urtarrila		2020ko Iraila		2022ko Urtarrila		2022ko Iraila	
Euskadi	20.756	39,7%	21.933	40,7%	16.145	30,6%	15.577	<b>31,8%</b>
Gipuzkoa	5.005	40,3%	5.461	41,8%	4.128	32,9%	3.790	<b>32,5%</b>
Goierri	263	56,2%	300	57,7%	248	49,1%	231	<b>50,0%</b>
Ataun	<5	18,8%	<5	20,0%	<5	17,6%	<5	<b>8,3%</b>
Beasain	74	52,9%	82	52,6%	52	34,9%	46	<b>36,5%</b>
Idiazabal	<5	28,6%	7	43,8%	6	54,5%	5	<b>41,7%</b>
Itsasondo	6	54,5%	12	66,7%	7	58,3%	11	<b>68,8%</b>
Lazkao	15	48,4%	23	53,5%	27	55,1%	20	<b>48,8%</b>
Legorreta	10	55,6%	10	58,8%	10	47,6%	8	<b>40,0%</b>
Ordizia	116	67,1%	127	69,4%	115	60,5%	113	<b>61,1%</b>
Ormaiztegi	8	47,1%	8	53,3%	10	58,8%	9	<b>64,3%</b>
Segura	6	54,5%	7	53,8%	<5	33,3%	<5	<b>16,7%</b>
Zaldibia	11	61,1%	9	56,3%	12	54,5%	10	<b>55,6%</b>
Zegama	5	55,6%	7	53,8%	<5	36,4%	7	<b>58,3%</b>

Iturria: Lanbide



- 2020az geroztik (COVID-19aren une gogorrena), diru-sarrerak bermatzeko errenta onuradunen kantitatea **jetsi egin da**, baina baita ere **atzerritarren portzentaia**.
- Goierriin mantendu egin da errenta onuradun atzerritarren kantitatea baina portzentaia jetsi egin da, honek esan nahi du bertakoen kantitatea igo dela.


# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.2 Gizartea eta ekonomia

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun atzerritarrek jatorriaren arabera

	Aberri gabea	Europar Batasuna	Gainontzeko Europa	Magreb	Saharaz hegoaldeko Afrika	Asia	Ipar Amerika	Hego Amerika	Ozeania	Estatu Espainiarra
Euskadi	729	1.307	621	4.448	3.427	683	8	4.353	<5	33.476
Gipuzkoa	244	332	160	1.261	591	258	2	942	<5	7.871
Goierri	9	20	5	57	100	21	0	19	<5	231
Beasain	<5	6	<5	11	15	<5	<5	9	<5	80
Ordizia	<5	8	<5	24	62	13	<5	<5	<5	72
Euskadi	1,4%	2,4%	1,2%	8,2%	6,4%	1,3%	0,0%	8,1%	0,0%	62,1%
Gipuzkoa	1,9%	2,5%	1,2%	9,6%	4,5%	2,0%	0,0%	7,2%	0,0%	60,2%
Goierri	<b>1,7%</b>	<b>3,8%</b>	<b>1,0%</b>	<b>11,0%</b>	<b>19,2%</b>	<b>4,0%</b>	<b>0,0%</b>	<b>3,7%</b>	<b>0,0%</b>	<b>44,4%</b>
Beasain	0,0%	3,8%	0,6%	7,1%	9,6%	2,6%	0,0%	5,8%	0,0%	51,3%
Ordizia	1,1%	4,4%	0,0%	13,1%	33,9%	7,1%	0,0%	2,2%	0,0%	39,3%

- Atzerritarren jatorriari erreparatuta Goierri ikus dezakegu **gehiengoa Afrikatik datorrela (guztiaren herena eta atzerritarren bi heren)**. Gipuzkoan eta Euskadin afrikarren portzentaia txikiagoa da espainiarren mesedetan.
- Gainontzeko jatorrietan datu antzekoak ikus ditzakegu, Hego Amerikarrak eta Europarrak izanik bigarren maila batean eta Asiatarrak ondoren. Ipar Amerikarrak eta Ozeaniatarrak ez dute errepresentazio nabarmenik.






# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.2 Gizarte ekonomia

### Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak modalitatearen arabera

	2020ko Urtarrila				2022ko Iraila			
	Laneko diru sarrerak osatzekoa		Oinarrizkoa		Laneko diru sarrerak osatzekoa		Oinarrizkoa	
Euskadi	10.429	19,9%	41.914	80,1%	7.576	15,4%	41.477	84,6%
Gipuzkoa	2.649	21,3%	9.783	78,7%	1.981	17,0%	9.680	83,0%
Goierri	90	19,2%	378	80,8%	71	15,0%	402	85,0%
Ataun	4	25,0%	12	75,0%	1	8,3%	11	91,7%
Beasain	34	24,3%	106	75,7%	19	15,1%	107	84,9%
Idiazabal	2	14,3%	12	85,7%	1	8,3%	11	91,7%
Itsasondo	2	18,2%	9	81,8%	4	26,7%	11	73,3%
Lazkao	5	16,1%	26	83,9%	5	12,2%	36	87,8%
Legorreta	3	16,7%	15	83,3%	1	5,0%	19	95,0%
Ordizia	27	15,6%	146	84,4%	31	16,8%	154	83,2%
Ormaiztegi	3	17,6%	14	82,4%	1	7,1%	13	92,9%
Segura	1	9,1%	10	90,9%	2	33,3%	4	66,7%
Zaldibia	6	33,3%	12	66,7%	1	5,6%	17	94,4%
Zegama	3	33,3%	6	66,7%	1	8,3%	11	91,7%

Iturria: Lanbide



- REGlaren onuradunen modalitatearen emaitza portzentualak **nahiko antzekoak dira**. EAEk, Gipuzkoak eta Goierrik joera berdintsua izan dute Covid-19ko krisiaren ondoren. %85 inguruk oinarrizko diru laguntza jasotzen du eta %15ak laneko diru sarrerak osatzekoa. Duela bi urte baina alde zabalagoa da, Covid-19aren krisiaren aurretik, %80ak jasotzen zuen oinarrizko diru laguntza.
- Herri gehienek eskualde eta erkidegoko joera jarraitzen dute nahiz eta Legorretak, Ataunek, Idiazabalek, Ormaiztegik, Zaldibiak eta Zegamak %90a gainditzen duten oinarrizko onuradunen kopuruan.

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA



## 02.2 Gizartea eta ekonomia

### Ikasleak eskola zentro eta hizkuntza ereduaren arabera

2021	Guztira				Publikoa				Pribatua			
	Guztira	Modelo A	Modelo B	Modelo D	Guztira	Modelo A	Modelo B	Modelo D	Guztira	Modelo A	Modelo B	Modelo D
Altzaga	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Arama	0	:	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Ataun	215	:	0	215	215	:	0	215	0	0	0	0
Beasain	3.268	257	0	3.011	2.251	257	0	1.994	1.017	0	0	1.017
Gabiria	30	0	0	30	30	0	0	30	0	0	0	0
Gaintza	3	0	0	3	3	0	0	3	0	0	0	0
Idiazabal	271	0	0	271	271	0	0	271	0	0	0	0
Itsasondo	74	0	0	74	74	0	0	74	0	0	0	:
Lazkao	1.235	0	0	1.235	:	0	0	0	1.235	0	0	1.235
Legorreta	150	0	0	150	150	0	0	150	0	0	0	0
Mutiloa	3	0	0	3	3	0	0	3	0	0	0	0
Olaberria	35	0	0	35	35	0	0	35	0	0	0	0
Ordizia	2.846	0	222	2.624	1.152	0	75	1.077	1.694	0	147	1.547
Ormaiztegi	147	0	0	147	147	0	0	147	0	0	0	0
Segura	227	0	0	227	227	0	0	227	0	0	0	0
Zaldibia	202	0	0	202	202	0	0	202	0	0	0	0
Zegama	221	0	0	221	221	0	0	221	0	0	0	0
Zerain	18	0	0	18	18	0	0	18	0	0	0	0
<b>Goierri</b>	<b>8.945</b>	<b>257</b>	<b>222</b>	<b>8.466</b>	<b>4.999</b>	<b>257</b>	<b>75</b>	<b>4.667</b>	<b>3.946</b>	<b>0</b>	<b>147</b>	<b>3.799</b>
Euskadi	383.150	58.165	66.954	255.784	20.0884	28.907	11.090	160.887	182.266	29.258	55.864	94.897

Iturria: Lanbide

- Goierriin **gehiengoa (%95) D eredu**an kokatzen da, hau da, soilik euskaraz ikasten dute. Euskadin baino hezkuntza askoz euskaldunagoa dela agerikoa da, autonomia erkidegoan soilik %67k ikasten baitu euskaraz.
- Zentroaren erregimenaren arabera nahiko banaketa berdintsua aurkitu dezakegu eskualdean. Goierriko ikasleen **%56ek zentro publiko** batean ikasten du eta **%44ak pribatuan**. Euskadin banaketa antzekoa ematen da.




# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.3 Lan merkatua

### Jarduera tasa (%)

	2022			
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Genero diferentzia
Euskadi	50,6	51,9	53,1	<b>1,25</b>
Gipuzkoa	50,5	51,7	53,0	<b>1,25</b>
Goierri	50,4	52,1	53,8	<b>1,70</b>
Altzaga	39,2	38,8	38,4	<b>-0,40</b>
Arama	45,8	45,6	45,3	<b>-0,25</b>
Ataun	46,9	47,8	48,6	<b>0,85</b>
Beasain	50,2	51,6	52,9	<b>1,35</b>
Gabiria	49,5	49,6	49,6	<b>0,05</b>
Gaintza	49,4	48,9	48,3	<b>-0,55</b>
Idiazabal	48,4	49,8	51,2	<b>1,40</b>
Itsasondo	45,3	45,8	46,3	<b>0,50</b>
Lazkao	50,4	51,6	52,8	<b>1,20</b>
Legorreta	52,8	54,8	56,8	<b>2,00</b>
Mutiloa	49,4	50,6	51,8	<b>1,20</b>
Olaberria	54,4	57,8	61,2	<b>3,40</b>
Ordizia	53,1	55,6	58,1	<b>2,50</b>
Ormaiztegui	50,7	52,8	54,8	<b>2,05</b>
Segura	49,3	49,9	50,4	<b>0,55</b>
Zaldibia	49,0	50,6	52,2	<b>1,60</b>
Zegama	52,2	54,2	56,1	<b>1,95</b>
Zerain	47,10	48,90	50,70	<b>1,80</b>

Iturria: Eustat



- Goierriko eskualdea, Gipuzkoako eta Euskadiko batezbestekoaren joeran mantentzen da, **%50 ingurukoko jarduera tasa** batekin. Azken urteetan antzekoigoera eman da eskualdean, lurraldean eta erkidegoan.
- Halaber, **genero ezberdintasuna nabarmen murriztu da** azken 10 urteetan. 2011n %10 inguruan zegoen eta azken urtean **%2aren azpitik** kokatzen da.
- **Herrien artean ezberdintasuna** dago hauen ezaugarri endogenoak (biztanleria batez ere) direla medio.


## 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

### 02.3 Lan merkatua

#### Lanbide tasa (%)

	2021			
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GENERO DIFERENTZIA
Euskadi	49,7	46,3	53,5	<b>7,20</b>
Gipuzkoa	51,0	47,5	54,7	<b>7,20</b>
Goierri	51,5	46,8	56,2	<b>9,40</b>
Altzaga	50,8	50,0	51,7	<b>1,70</b>
Arama	53,3	53,3	53,2	<b>-0,10</b>
Ataun	52,8	49,0	56,3	<b>7,30</b>
Beasain	52,3	47,7	56,9	<b>9,20</b>
Gabiria	54,2	54,1	54,2	<b>0,10</b>
Gaintza	57,3	60,0	55,4	<b>-4,60</b>
Idiazabal	51,9	47,6	56,2	<b>8,60</b>
Itsasondo	52,7	50,4	55,0	<b>4,60</b>
Lazkao	55,4	49,6	61,1	<b>11,50</b>
Legorreta	52,2	49,3	54,9	<b>5,60</b>
Mutiloa	56,4	46,2	65,4	<b>19,20</b>
Olaberria	50,5	45,1	55,5	<b>10,40</b>
Ordizia	51,5	46,1	57,0	<b>10,90</b>
Ormaiztegi	51,6	47,4	56,0	<b>8,60</b>
Segura	56,5	55,3	57,6	<b>2,30</b>
Zaldibia	51,2	46,6	55,7	<b>9,10</b>
Zegama	56,5	51,6	61,0	<b>9,40</b>
Zerain	51,1	48,7	53,5	<b>4,80</b>

Iturria: Eustat



- Lanbide tasa bezala 16 eta 64 urte bitarteko biztanleri guztiaren eta lana daukaten pertsonen proportzioa da. **Goierriko lanbide tasa beste eskualdeko batezbestekoaren gaitetik dago.**
- **Genero diferentzia handiagoa** da Gipuzkoa eta Euskadiko datuekin alderatuta. Diferentzia hau estrukturala da, urteak baitaramatze horrela.
- **Herrien artean** berriro ere **disparitate altua** ikus daiteke, ezaugarri endogenoen ondorioz.


# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.3 Lan merkatua

### Lanbide tasa jardueraka

Jarduera	GOIERRI		EUSKADI		GIPUZKOA			
	2011	2021	2021	2021	2021	2021		
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza	270	1,0%	257	0,9%	7538	0,8%	2011	0,6%
Arrantza, akuikultura	2	0,0%	4	0,0%	1257	0,1%	373	0,1%
Ateratze-industriak	29	0,1%	11	0,0%	367	0,0%	108	0,0%
Manufaktura-industria	9.895	35,8%	10114	34,5%	163536	17,5%	65943	21,1%
Elektrizitatea, gasa eta ura ekoiztu eta banatzea	150	0,5%	162	0,6%	8688	0,9%	2478	0,8%
Eraikuntza	2.074	7,5%	1827	6,2%	53488	5,7%	16949	5,4%
Merkataritza eta konponketa	3.389	12,3%	3200	10,9%	132890	14,2%	43961	14,1%
Ostalaritza	1.466	5,3%	1451	4,9%	61365	6,6%	21663	6,9%
Garraioa, bilketa eta komunikazioak	1.288	4,7%	1231	4,2%	66571	7,1%	19328	6,2%
Finantza-bitartekaritza	425	1,5%	334	1,1%	16878	1,8%	4893	1,6%
Onibar-jarduerak eta alokairukoak; enpresa-zerbitzuak	2.300	8,3%	2564	8,7%	128022	13,7%	37556	12,0%
Herri-administrazioa	900	3,3%	1059	3,6%	51349	5,5%	14661	4,7%
Hezkuntza	2.080	7,5%	2574	8,8%	74983	8,0%	26682	8,6%
Osasun- eta albaitaritza-jarduerak, gizarte-zerbitzua	2.119	7,7%	2762	9,4%	98864	10,6%	32271	10,3%
Bestelako gizarte-zerbitzuak eta norbanakoentzako zerbitzuak	935	3,4%	985	3,4%	40453	4,3%	14118	4,5%
Etxeko langileak dituzten etxebizitzak	339	1,2%	803	2,7%	27617	3,0%	8882	2,8%
Lurraldez kanpoko erakundeak	1	0,0%	0	0,0%	60	0,0%	7	0,0%

Iturria: Eustat



- Lanean aurkitzen diren pertsonak kokatuta dauden sektore ekonomikoak aintzat hartuta, **2021. urtean biztanleria manufaktura industriako sektorean kokatuta zegoen nagusiki (%34,5)**, Euskadi eta Gipuzkoako datuaren oso gainetik.
- Merkataritzak ere pixu handia du (%10,9)** Goierriin, baina Gipuzkoa eta Euskadin baino gutxiago (%14 inguru). **Hezkuntza eta osasun zerbitzuak** daude bigarren mailan, Gipuzkoa eta Goierriko datuen parean.


# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA

## 02.3 Lan merkatua

### Landunen kopurua, sektoreka 2021

- 2021. urtean landunak **industria (%44,2)** eta **zerbitzu sektoreetan (%46,8)** kokatuta zeuden gehienbat.
- Industria sektoreak pixu nabarmena du Goierriin eskualdearekin eta lurraldearekin konparatuz. Zerbitzu sektoreak aldiz pixu gutxiago du (nahiz nabarmen igo den) Goierriko landunen kopuruan EAEn eta Gipuzkoan baino.
- **Herriz herri** egindako azterketak **joera antzekoa** erakusten digu, %35 eta %40 artean kokatuz industria sektoreko landunen kopurua eta %50 eta %60an zerbitzu sektoreko landunak.

■ Nekazaritza ■ Industria ■ Eraikuntza ■ Zerbitzuak



2021	Nekazaritza		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak	
Euskadi	8.795	<b>0,9%</b>	172.591	<b>18,2%</b>	53.488	<b>5,6%</b>	699.052	<b>73,6%</b>
Gipuzkoa	2.384	<b>0,7%</b>	68.529	<b>21,2%</b>	16.949	<b>5,3%</b>	224.022	<b>69,4%</b>
Goierri	261	<b>1,1%</b>	10.287	<b>44,2%</b>	1.827	<b>7,9%</b>	10.887	<b>46,8%</b>
Altzaga	1	2,6%	15	23,1%	4	10,3%	45	69,2%
Arama	6	5,6%	29	32,2%	5	4,7%	50	55,6%
Ataun	37	6,4%	231	32,1%	40	6,9%	411	57,2%
Beasain	24	0,3%	2.069	34,5%	441	4,9%	3.460	57,7%
Gabiria	6	3,1%	91	37,0%	25	13,1%	124	50,4%
Gaintza	2	9,5%	20	31,7%	3	14,3%	38	60,3%
Idiazabal	19	1,8%	408	41,3%	43	4,1%	517	52,4%
Itsasondo	4	1,1%	105	36,3%	16	4,5%	164	56,7%
Lazkao	20	1,4%	1.057	40,3%	137	9,7%	1.407	53,7%
Legorreta	1	0,2%	207	32,3%	44	10,2%	388	60,6%
Mutiloa	1	1,6%	41	37,3%	7	11,1%	61	55,5%
Olaberria	6	0,3%	167	39,9%	23	1,2%	223	53,2%
Ordizia	16	0,7%	1.342	31,5%	370	15,1%	2.527	59,4%
Ormaiztegi	1	0,2%	210	39,8%	21	3,3%	295	56,0%
Segura	15	5,7%	262	39,2%	22	8,3%	370	55,3%
Zaldibia	16	3,4%	233	34,2%	58	12,3%	375	55,0%
Zegama	17	4,6%	266	38,0%	47	12,8%	370	52,9%
Zerain	7	8,2%	47	39,8%	2	2,4%	62	52,5%

Iturria: Eustat

# 02 LAN MERKATUAREN AZTERKETA OROKORRA


## 02.3 Lan merkatua

- 8. LANGILE KUALIFIKATUEN ERRONKA. Enpresek zailtasunak dituzte zenbait lanpostu esperientzia duten langile kualifikatuekin osatzeko.** Beren ikasketetatik zuzenean ateratzen direnengana edo atzerritarrengana jo behar dute, esperientzia duten pertsonak enpresa handiagoetan finkatuta daudelako. Horren aurrean, ikasketa dualen proiektua oso interesgarria izan daiteke ETEentzat.
- 9. ERRONKA: BALIOAK ALDATZEA.** Oinarrizko bizi-balioak aldatzen ari dira gizartean. Lana eta dirua jada ez dira bizitzaren erdigune, eta gazteek garrantzi gehiago ematen diete beste gauza batzuei (ongizate pertsonala, erosotasuna, bizitza soziala, pribilegioak). Horren aurrean, enpresek beren etika egokitu behar dute, gazteekin dagoen aldea murrizteko eta gizarte berri horren parte izateko.

## 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA



EGOERAREN ANALISIA

ERRONKA ETA HELBURU FINKAPENA

ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

LAN ILDOEN EZARPENA



# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

## 04.0 Egoeraren analisia

### Eszenatoki ezberdinen azterketa

Egoera aztertzeko eta datoz urteetako joerak aurreikusteko eskualdeko enpresa eta erakundeekin hainbat jardunaldi antolatu dira. Bertan proposaturiko erronkak aztertu eta hauen aurrean zer aurreikuspen eta lan ildo posible ikusten dituzten azaltzen saiatu da. Enpresa ezberdinak etorri dira, ETE eta enpresa handien ikuspegia kontrajartzeko, baita ikasketa zentro edo merkataritza teknikariak ere. Ahalik eta ikuspegi sakon eta zabalena garatzea izan da helburua.

Jardunaldi hauetan, lehenik eta behin, definitutako erronken aurrean ze eszenatoki aurreikusten den aztertu da. Lanketa honetan enpresek beraien iritziz posible-desiragarri-egingarri ekuazioaren bidez eszenatoki bat aukeratu dute. Behin eszenatoki hau aukeratuta zein lan ildo den egokiena identifikatzen saiatu da.

Honetaz gain eszenatoki ez desiragarriak identifikatu dira, eta hauek nola ekidin landu da. Halaber, eszenatoki desiragarrira iristeko arazoak zein izango diren eta hauek nola ekidin ere landu da.

Honela garatu dugu enplegu planaren azken atal hau, beharrezkoa baita enpresen errealitatea eta beharrak ikustea gaur egungo enplegu egoeraren analisi zabal eta sakona egin nahi bada.

# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

## 04.0 Egoeraren analisia

- 1** **ERRONKA DEMOGRAFIKOA**

Analisi demografikoak argi uzten du jaiotzen kopuruak behera egin duela (357 jaiotza 2021ean, 538 jaiotza 2010ean). Horrek eragin handia izango du gizarte-segurantzako afiliazioaren biztanleria-piramidean. 45 urteko lan-bizitza posible bat kalkulatzeko bada, hau da, 20 eta 65 urte artekoa, 16.065 pertsonako biztanleria proiektatzen da. Goierriko egungo biztanleria 25.422 pertsonakoa da tarte horretan, eta beherazko joera du.
- 2** **PERTSONEN GAITASUNEN ERRONKA**

Goierri batz bestekoak baino ikasketa-maila baxuagoa du. Lehen hezkuntzari eta ikasketa baxuagoi dagokienez, tasa % 35,34koa da, Gipuzkoan % 31,31koa eta Euskadin % 31,51koa. Goierri Lanbide Heziketako ikasketak nabarmentzen dira. Goierri, 2023ko apirilean, 1.540 pertsona zeuden langabezian, langabezia-tasaren % 7,3. 16 eta 64 urte bitarteko 394 pertsonak kobratzen zuten diru-sarrerak bermatzeko errenta 2022ko irailean.
- 3** **LAN BERTINTASUNAREN ERRONKA**

Emakumeen okupazio-tasa % 46,8koa da; gizonena, berriz, % 56,2koa, eta diferentziala % 9,4koa. Emakumeen langabezia-tasa % 9,4koa da; gizonena, berriz, % 6,2koa, eta diferentziala % 3,2koa.
- 4** **ETE-n ETA TRAKTOREN ELKARBIZITZA ERRONKA**

Enpresa traktoreen eta enpresa txiki eta ertainen arteko lehia langileengatik.
- 5** **ATZERRITARRAK INTEGRATZEKO ERRONKA**

Goierri atzerritarrak % 13,2 dira, Gipuzkoan eta Euskadin baino ehuneko 5 puntu gehiago. Azken 10 urteetan biztanleria atzerritarra % 38,6 hazi da, 2011n 4.220 izatetik 2021ean 5.850 pertsona izatera, eta goranzko joerarekin.
- 6** **ETE-en BIZIRAUPENAREN ERRONKA.**

Enpresa traktoreen eta enpresa txiki eta ertainen arteko lehia desberdina langileengatik. ETEek arazoak dituzte berain enpresei balioa emateko.
- 7** **GAINBEHERAN DAUDEN SEKTOREEN ERRONKA**

Zenbait sektoreek beherakada nabarmena izan dute, batez ere ostalaritza, siderurgia eta nekazaritzak.
- 8** **LANGILE KUALIFIKATUEN ERRONKA**

12 urteko epean enplegua % 31,4 hazi da, 2009an 17.697 langile izatetik 2021ean 23.262 izatera. Egungo plantilla fidelizatzeko estrategiak funtsezkoak dira beste lurralde batzuetako eta beste herrialde batzuetako enpresen eskaintzen aldean, bereziki, ingeniari kualifikazio altuako profilak dituztenenak. Enpresek langile gainkualifikatuak dituzte, lanpostuan betetzen dituzten eginkizunei eta zereginei dagokienez.
- 9** **ERRONKA: BALIOAK ALDATZEA**

**Belaunaldi gazteenen balioen eraldaketa: aisialdirako denbora librearen balio handiagoa, bizitza pertsonalaren eta profesionalaren arteko bereizketa handiagoa, telelana, etab.**

# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

## 04.1 Erronka demografikoa

Analisi demografikoak argi uzten du **jaiotzen kopuruak behera egin duela** (357 jaiotza 2021ean, 538 jaiotza 2010ean). Horrek eragin handia izango du gizarte-segurantzako afiliazioaren biztanleria-piramidean. 45 urteko lan-bizitza posible bat kalkulaten bada, hau da, 20 eta 65 urte artekoa, 16.065 pertsonako biztanleria proiektatzen da. Goierriko egungo biztanleria 25.422 pertsonakoa da tarte horretan, eta beheranzko joera du.




- Enpresa eta erakundeek joera tendentzial bat espero dute. Aurreikusten da epe ertainean gizarte baloreek ez dutela aldaketa handirik jasango eta honek jaiotzen kopuruaren hazkunde masibo bat galereziko dutela. Honela, analisia egin ostean, lehen bi eszenatokiak aurreikusten dira. Hau da, epe ertainera ez da espero 450 jaiotza baina gehiago izatea urtean.
- Honek esan nahi du hazkunde begetatiboak balantza ekilibratua ala negatiboa izango duela, honek dakartzan ondorioekin. Azterketan ikusi da mobilidadea ere gutxitu egin dela eta eskualdeak erakargarri izan beharko duela jaiotza kopurua igo nahi bada.
- Jaiotza kopurua atzerritarrek mantendu dute. Kultura eta balore ezberdinak dituzte eta ume gehiago izateko joera nabarmena da.

# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

## 04.2 Langile kualifikatuen erronka

12 urteko **epean enplegua % 31,4 hazi da**, 2009an 17.697 langile izatetik 2021ean 23.262 izatera.




- 2009tik nabarmen hazi da enplegua. 2009 urtea momenturik baxuena bezala ulertu behar da (2008ko krisiaren ostean) eta enpresek ez dute horrelako hazkunde prozesua aurreikusten 12 urte barru. Hala ere joera positiboa espero dute enpresek.
- Eszenatokiak aztertzeke garaian tendentziala izan da enpresa gehienen hautua. Enpleguak gora egingo duela aurreikusten da, robotizazio eta digitalizazioa txertatzen joango da enpresa mundan baina geroz eta lanpostu gehiago sortuko direla aurreikusten da. Produktibitatea igoz enplegua igoko da.
- Azken urteetan egoera ezegonkorra izan da COVID-19aren ondorioz, eta lan hazkunde handia eman da azken bi urteetan (errekuperazio prozesu baten ondorioz). Enpresek egoera egonkortzea aurreikusten dute epe motz eta ertainean.

# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

## 04.3 Lan berdintasunaren erronka

Emakumeen **okupazio-tasa** % 46,8koa da; gizonena, berriz, % 56,2koa, eta **diferentziala** % **9,4koa**. Emakumeen **langabezia-tasa** % 9,4koa da; gizonena, berriz, % 6,2koa, eta **diferentziala** % **3,2koa**.



- Lan berdintasunaren inguruko lanketa jada martxan dagoela ikusi da. Urteak dira lanketa martxan jarri zenetik eta berdintasun juridikoa nahiko nabarmena da. Hala ere, berdintasun erreala ez da iritsi eta oraindik lan luzea dagoela ikusi da. Denbora beharko da eta enpresek aurreikusten dute epe ertain luzera arte ez dela berdintasun erreala hau iritsiko.
- Hala ere, azterketan joera positiboak nabarmendu dira. Eszenatoki tendentzial eta tendentzial-positiboa izan dira hautatuenak. Ez da aurreikusten epe ertainean berdintasun erreala iritsiko denik, baina aurretik eginiko lana orain egindakoari gehituz, berdintasun honen bidea erraztuko duela aurreikusten da.
- Zenbait gizarte sektoreren lan atxikiemendua da oztopo nagusia. Kualifikazio baxuko emakumeen inklusioa zaila da oraindik. Honetaz gain, zenbait estereotipo eta estigmen ondorioz sexu banaketa handia ikusten da lan sektoretan.

# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

## 04.4 Pertsonen gaitasunen erronka

**Goierrik batez bestekoak baino ikasketa-maila baxuagoa du.** Lehen hezkuntzari eta ikasketa baxuagoei dagokienez, tasa % 35,34koa da, Gipuzkoan % 31,31koa eta Euskadin % 31,51koa. **Goierri Lanbide Heziketako ikasketak nabarmentzen dira.**



- Eskualdeko egoera endgoenoa aztertu da kualifikazio baxu hau ulertzeko. Kualifikazio baxu honen eragile nagusia atzerritar kopurua da, gehienak kualifikaziorik gabe baitatoz eta kualifikatuak ezin dituzte beraien ikasketak bertakoekin homologatu. Honez gain, langabezia baxuak ikasketa beharrak uxatzen ditu. Lana erraz lortzeak ikastearen motibazioa jeisten du eta Goierriko egoera horren ondorio izan daiteke.
- Lanbide Heziketaren protagonismoa nabarmena eta erabat logikoa da. Industriaren pixua handia da eskualdean (beste lurraldeetan baino gehiago) eta bertan lan egiteko Lanbide Heziketa ikasketak behar dira. Hezkuntza zentroek lan handia egin dute hau sustatzeko.
- Enpresek eta erakundeek hala ere aurrera pausu bat aurreikusten dute biztanleriaren ikasketa mailan. Eszenatoki tendentzial positiboa izan da nabarmen aukeratuena, horretarako lanketan parte hartzeko konpromezua hartuz.

# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA


## 04.5 Pertsonen gaitasunen erronka

Goierriin, 2023ko apirilean, **1.540 pertsona zeuden langabezian, langabezia-tasa % 7,3** izanik. 16 eta 64 urte bitarteko 394 pertsonak kobratzen zuten diru-sarrerak bermatzeko errenta 2022ko irailean.



### 1. NEGATIBO-TENDENTZIALA

• Langabezia-tasa % 8tik gora igoko da, enpresen beharren eta langabezian dauden pertsonen gaitasunen arteko desorekak gora egin duelako.



### 2. TENDENTZIALA

• Langabezia-tasa % 7 inguruan mantenduko da, enpresen beharren eta langabezian dauden pertsonen gaitasunen arteko desorekak jarraitzen duelako.



### 3. TENDENTZIAL-POSITIBOA

• Langabezia-tasa % 6 ingurukoa izango da, enpresen beharrianak eta langabezian dauden pertsonen gaitasunak gehiago doitzen direlako.



### 4. POSITIBOA


• Langabezia-tasa % 4 ingurura jetsiko da, eta egiturazko langabezia gisa hartzen da.

- Langabezia tasaren inguruan azterketak joera egonkor bat espero du, %7 inguruan mantenduko dena. Horrela, erakunde eta enpresek joera tendentzial eta tendentzial positibo bat aurreikusten dute nahiz eta joera positiboa ez baztertu.
- Azterketan Goierriko langabezia estrukturalari buruz eztabaidatu da. Batzuen ustez Goierriin %6-7-koa da, hau dan, lanpostu gehiago sortuko balira ere ezingo litzteke hau gutxitu langabeen eta lanpostu berrien perfilen desorekagatik. Laguntza publikoek ere eragin handia dute langabezia estruktural altua izateko garaian.
- Langabezia gehiago jeistea posible dela ere ikusi da, baldin eta neurri egokiak eta perfilen oreka mantentzen bada, lanpostu gehiago sortzearen joerak eta afiliazio kopuruaren jetsierak langabezia tasa nahitaezean gutxituko du.

# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

## 04.6 Langile kualifikatuen erronka

Egungo **plantilla fidelizatzeko estrategiak funtsezkoak dira** beste lurralde batzuetako eta beste herrialde batzuetako enpresen eskaintzen aldean, bereziki, ingeniari kualifikazio altuako profilak dituztenenak.



- Enpresek aurreikuspen positiboak dituzte plantilak fidelizatzeko garaian. Eskualdea erakargarria dela eta horretan sakonduko dela sinisten dute, bertako langileria fidelizatuz.
- Gizartearen balore berriek mugikortasuna mugatzen dute; geroz eta gertuago bilatzen da lanpostua eta nahiz eta errotazio maila altua mantendu ez da tendentziarik ematen kanpora joateko. Zenbait lanpostu kualifikatu oso espezifikoetaz haratago, eskualdea erakargarria da langile kualifikatuentzat.



# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA


## 04.7 Langile kualifikatuen erronka

Enpresek **langile galkualifikatuak** dituzte, lanpostuan betetzen dituzten eginkizunei eta zereginari dagokienez.



### 1. NEGATIBO-TENDENTZIALA

• Enpresek ez dute lortzen plantilak optimizatzea, teknologia berriei dagokienez gaitasun faltak dituzten pertsonak baitituzte teknologia berrietan, eta, aldiz, langile galkualifikatuak erantzukizun-maila txikiko zereginak betetzen.



### 2. TENDENTZIALA

• Enpresak beharren arabera ari dira plantiletan doikuntzak egiten, teknologia berriei dagokienez gaitasun falta dituzten pertsonak daudela onartuz, eta, aldiz, langile galkualifikatuak erantzukizun-maila txikiko zereginak betetzen.



### 3. TENDENTZIAL-POSITIBOA

• Enpresek beharren arabera etorkizuneko plantilak, pertsonak etorkizuneko aldaketetarako prestatuz eta kualifikazio handieneko pertsonen funtzioak optimizatuz.



### 4. POSITIBOA


• Enpresek ahalik eta gehien optimizatzen dituzte plantilak, langileak etorkizuneko beharretarako prestatuz, eta ahalik eta gehien optimizatuz pertsona guztien funtzioak, eta, bereziki, kualifikazio handieneko pertsonenak.

- Galkualifikazioa automatikoki zuzentzen dela aztertu da. Hau da, lanpostuen eskaera eta eskaria automatikoki zuzentzen da. Hala ere enpresa barruko lanpostuetan doikuntza gabeziak izan daitezke eta langile kualifikatua aprobetxatu gabe izan, baita kualifikazio altua behar duten lanpostuak kompetentzia gutxiago duten langileekin bete.
- Epe ertainean doikuntza gabezia hau zuzentzen joango dela aurreikusten da. Joera tendentzial-positiboa izan da eszenatoki aurreikusiena nahiz eta ETE-n eta enpresa handien arteko aldea nabarmena den zentzu honetan. Aurreikuspen hobea dute enpresa handiek plantila optimizatzekeo garaian.
- Kualifikazioari baino garrantzi gehiago ematen diote enpresek aptitudeari. Hau da, kualifikazioak ez du kapazitatea derrigorrean ekartzen eta zeharkako kompetentziak indar gehiago daukate.

# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

## 04.8 Atzerritarrak integrazzeko erronka

Goierriin pertsona **atzerritarrak biztanlerieren % 13,2 dira**, Gipuzkoan eta Euskadin baino ehuneko 5 puntu gehiago. Azken 10 urteetan biztanleria atzerritarra % 38,6 hazi da, 2011n 4.220 izatetik 2021ean 5.850 pertsona izatera, eta goranzko joerarekin.




- Goierriin atzerritar asko daude. Azterketan ikusi da etorkinak bertan luzerako gelditzeko joera dutela, hau abantaila bat da bertako kultura eta gizartera atxikitzea lortzen bada. Oso ezberdina da beraien jatorria eta joera batzuk ikusten diren arren (errumaniarrak, subsahariarrak eta hegoamerikarrak, batez ere) biztanle talde oso heterogeneoa da.
- Aurreikuspenen tendentzia positibo bat aurreikusten dute, hau da, atzerritar biztanleria handituko dela. Hauek paperak dituzten ala ez jakitea garrantzitsua izango da errealitatea ondo aztertzeko eta lan ildo egokiak aukeratzeko.
- Eskualdea erakargarria dela argi uzten dute datu eta aurreikuspen hauek. Goierrikerak erakartze indar handia du eta kanpotarrek aukerak ikusten dituzte eskualdean.

# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

## 04.9 ETE-n eta traktoren elkarbizitza erronka // ETE-en biziraupenaren erronka.

Enpresa traktoreen eta enpresa txiki eta ertainen arteko **lehia desberdina** langileengatik.



- Ikuspegi ezberdintasun handia dago ETE eta enpresa handien artean. Enpresen gaitasunaren eta merkatuaren tendentziaren arabera ikuspegi hau gerturatu ala urrundu egiten da. ETE eta traktoren taldearen barruan ere egoera ezberdindun enpresak daude.
- Enpresa txikiek diote ez direla gai ikusten enpresa handiekin lehiatzeko. Lan baldintak eta soldatak hitzartzeko garaian desabantaila nabarmena dutela sentitzen dute, horregatik eszenatoki negatibo edota tendentzial bat aurreikusten dute. Enpresa handiek ordea, tendentzial eta positiboa.
- Enpresa txikien iritziz traktorek epe motzeko ikuspegi batekin jokatzeko dute eta hau arriskutsua izan daiteke etorkizunean.

# 04 ESZENATOKI EZBERDINEN AZTERKETA

## 04.10 Balioak aldaketen erronka


**Belaunaldi gazteenen balioen eraldaketa:** aisialdirako denbora librearen balio handiagoa, bitzta pertsonalaren eta profesionalaren arteko bereizketa handiagoa, telelana, etab.



- Gizartearen baloreak eta lan-etika aldatzen ari dela nabarmena da. Honek ondorio ezberdinak dakartza lan munduan eta enpresek berauetara moldatu beharko dute baldin eta gizartean biziraun nahi baitute. Balore aldaketa hauek oso heterogeneoak dira eta denboran zehar moldeatzen dira.
- Honegatik, enpresek egoera tendentzialak edo positiboak aurreikusten dituzte, gai ikusten dira gizartearen beharretara moldatzeko, baita gizarteari beraien beharrak ulertarazteko.

## 05 ERRONKEN ERANTZUNAK

## 05 ERRONKEN ERANTZUNAK



# 05 ERRONKEN ERANTZUNAK

## 05.0 Lan ildoak eta estrategiak



### ERRONKA DEMOGRAFIKOA

- KONTZILIAZIO POLITIKAK SUSTATU
- ERRETIRO-ADINA MALGUTZEA SUSTATU
- GOIERRI ERAKARGARRI EGIN LAN EGITEKO
- BALORE KULTURAL BERRIEI EGOKITU

### PERTSONEN GAITASUNEN ERRONKA

- KUALIFIKAZIO MAILA BAXUA SAKON AZTERTU
- TITULUEN HOMOLOGAZIOA ERRAZTU
- FORMAZIO MAILA IGO ZENTZU GUZTIETAN

### LAN BERDINTASUNAREN ERRONKA

- BERDINTASUN ESTRATEGIAK SUSTATU ESKUALDEAN
- GIZARTE- ETA LAN-ARLOKO GENERO-ESTEREOTIPOEI AURRE EGIN ETA HORIEK GAINDITU

### LANGILE KUALIFIKATU ERRONKA

- HEZKUNTZA SISTEMAREKIN ELKARLANA INDARTU
- ALDAKETEN AURREAN LANGILEEN TREBAKUNTZAN LAGUNDU ENPRESEI
- PLANTILEN OPTIMIZAZIO ETA BERRIKUNTZA SUSTATU
- TALENTUA ERAKARRI

### ATZERRITARRAK INTEGRATZEKO ERRONKA

- ATZERRITARREN GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA ERRAZTU

### ETE-AK BIZIRAUTEKO ETA TRAKTOREKIN BIZIKIDETZEKO ERRONKA


- ETE ETA TRAKTOREN ELKARLANA INDARTU
- ETE-AK ERAKARGARRI EGIN

### BALORE ALDAKETEN ERRONKA

- BALORE SOZIOLABORAL BERRIARI ERANTZUNAK BILATU
- LAN-BALDINTZAK GIZARTE-BALIO BERRIETARA EGOKITU

# 05 ERRONKEN ERANTZUNAK


## 05.1 Erronka demografikoa





# 05 ERRONKEN ERANTZUNAK

## 05.2 Pertsonen gaitasunen erronka



# 05 ERRONKEN ERANTZUNAK

## 05.3 Lan berdintasunaren erronka

- Enplegu eta gizarte politikak protagonista papera izan behar dute berdintasuna lortu nahi bada. Ezinbestekoa izango da berdintasuna lortzeko baldintza errealak sortzea erraztea.


### 3.1 BERDINTASUN ESTRATEGIAK SUSTATU ESKUALDEAN

### 3.2 GIZARTE- ETA LAN-ARLOKO GENERO-ESTEREOTIPOEI AURRE EGIN ETA HORIEK GAINDITU

- Lan sektoreen sexu banaketa ekidin behar da. Estigma eta lan kulturak aldatzeko nerabezaroitik lanketa egin behar da.
- Hezkuntza zentroek, eta batez ere familiek, ZTIM bokazioak berdintasunean landu behar dituzte. Ezinbestekoa da ulertaraztea ez dela sexu banaketarik izan behar lan postuaren arabera. Horretarako erreferenteak, lan postuen ezagutzak, estereotipoen gaindipenak, etab. garatu beharko dira.

# 05 ERRONKEN ERANTZUNAK

## 05.4 Langile kualifikatuen erronka



# 05 ERRONKEN ERANTZUNAK

## 05.5 Atzerritarrak integratzeko erronka

- Atzerritar biztanleria nabaria da eskualdean. Oso talde heterogeneoa da eta beharrezkoa da azterketa sakon bat bakoitzaren errealitateak ondo ezagutzeko. Kultura batzuk beste batzuk baino lan-keta edota laguntza gehiago behar baitute gure lan mundura egokitzeko (hizkuntza, ordutegiari buruzko ikuspegia, lan motak, ikasketak, ...).
- Itinerario pertsonalizatuak zehaztu beharko dira egoera bakoitzaren arabera. Errealitate sozio-kulturala ezagutu eta egoikien doitzen zaizkien lanpostuetara bideratu behar dira. Honetarako instituzio publikoek, enpresek eta hezkuntza zenroek parte hartze aktiboa izan behar dute.
- Bigarren belaunaldari ekintza zehatzagoak eskeini behar zaizkio. Gaztetatik lan munduaren beharretara doitutako hezkuntza sisteman txertatu behar dira, enpresen eta biztanleria sektore honen sinergia bultzatuz eta eskualdearen ongizatea bermatuz.
- Bizitzeko eta lan egiteko papelak lortzea erraztea ezinbestekoa da. Baita beraien herrialdeetako hezkuntza tituluen homologazioa erreztea ere.

### 5.1 ATZERRITARREN GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA ERRAZTU

# 05 ERRONKEN ERANTZUNAK

## 05.6 Ete-ak bizirauteko eta traktorekin bizikidetzeko erronka

- Eskualdeko enpresa sarea osatzen duten bi errealitate dira. Beraien artelo elkarlana ezinbestekoa da.
- Enpresek elkarlanerako mahi ezberdinak osatu behar dituzte, eta honetan instituzio publikoek paper aktiboa jokatu behar dute
- Errespetu politikak martxan jarri behar dira. Gaitasun ezberdintasunagatik egon daitezkeen jokabide abusiboak ekiditeko.
- Ordainketa epeen ionguruan ere lanketa egin behar da. Enpresa txikiek beharrezkoa baitute zor zaiena epean jasotzeza aurrera egin ahal izateko
- Elkarlanak errespetuan, kolaborazioan eta berditasunean oinarritu behar dira, elkarrekin epe luzerako ikuspegia partekatuz.
- Langile kontratazioen balantza bilatu behar da, enpresa guztiak behar dituzten (bai kantitatez eta bai kalitatez) langileak izan ditzaten. Hau da, plantilak errespetatu behar dira. Honetarako politika ezberdinak martxan jarri daitezke (fidelizazio klausulak, lanpostu kritikoaren identifikazioa, ...).

### 6.1 ETE ETA TRAKTOREN ELKARLANA INDARTU

### 6.2 ETE-AK ERAKARGARRI EGIN

- ETEek beraien enpresa erakargarri egin behar dute “langile guda” honen aurrean. Enpresa handiek eskaintzen dituzten baldintzak ezin dituztela eskeini nabarmena da baina beste estrategia batzuk landu behar dituzte. Estrategia hauek lantzeko ETEen izaera flexiblea aprobetxatu behar da (lan ordu malguak, enpresan eta emaitzetan parte-hartzea, arropa berezia, enpresa barruko zerbitzu ezberdinak, telelana, asisitentzia plusak, ...).

# 05 ERRONKEN ERANTZUNAK

## 05.7 Balore aldaketen erronka

- Enpresek erantzunak bilatu behar dituzte balore berri hauen aurrean. Horrela gizarte-enpresa erlazioa garatu ahal izango da. Telelana, erabakietan parte hartzea, lanari balio ematea, ... bezalako neurriek pisu garrantzitsua izango dute eta honetan ETEk abantaila izan dezakete beraien malgutasunagatik.
- Balore kulturalak ez dira beste balore batzuk baino hobeak ala okerragoak, ezin dira eskala batean katalogatu. Testuinguruaren eta errealitate sozialaren erantzun bat dira eta enpresek hau ulertzea, berrietara egoikitzea eta hauen parte izatea ezinbestekoa da.

### 7.1 BALORE SOZIOLABORAL BERRIARI ERANTZUNAK BILATU

### 7.2. LAN-BALDINTZAK GIZARTE- BALIO BERRIETARA EGOKITU

- Gaur egun lana ez da bizitzaren erdigune, baina beharrezkoa da bizitzaren parte izatea. Bestela egoerak okerrera egin eta gizarte enpresa mundutik urrun sentituko da. Honetarako motibazio politikak martxan jarri behar dira, langileari ulertuz enpresaren parte dela eta garrantzia emanez bere lanari.
- Enpresek balore berrietara egokitu behar dute baina beraien errealitatea eta beharrak kontuan izanik.

## 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.1 Erronka demografikoa

Estrategia

1.1 Kontziliazio politikak sustatu

Lan lerroa → 1.1.1 Kontziliazio politikak bultzatzea enpresetan

HELBURU  
ESPEZIFIKOAK

- Jardunbide egokiak identifikatzea eta helaraztea
- Familia-kontziliazioa oztopatzen duzu

EKINTZAK

- 1.- Prozesu argiak diseinatzea amatasun eta/edo aitatasun baje kasuan
- 2.- Familia kontuengatik ordutegia malgutzeko gaitasuna baloratzea
- 3.- Hainbat erakunde eta enpresetako kontziliazio-planak ezagutaraztea

KRONOLOGIA

2023-2030

ADIERAZLEAK

Jaiotza tasa

BALIABIDEAK

Propioak

LIDERGOA

Goieki

AURREKONTUA

Proiektuaren arabera

FINANTZIAZIOA

Goieki eta kontziliazio arloko diru-laguntzak





# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.1 Erronka demografikoa

### Estrategia

### 1.2 Erretiro adinaren malgutzea sustatu

**Lan lerroa** ➔ 1.2.1 Erakunde publiko eta pribatuetan erretiro-adina malgutzeko estrategiak definitzea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- ❑ Eskualdeko erretiro-prozesuari buruzko indarguneak, ahuleziak, aukerak eta mehatxuak identifikatzea
- ❑ Enpresen beharrak erretiro-prozesuetara nola egokitu aztertzea

**EKINTZAK**

- 1.- Erretiroaren errealitateari buruzko informazio demografikoa eta enpresariala biltzea
- 2.- Eskualdeko erretiro-prozesuei buruzko AMIA bat egitea
- 3.- Lortutako emaitzak talde interesdunei zabaltzea

KRONOLOGIA	2023-2024	ADIERAZLEAK	Plana egitea eta zabaltzea
BALIABIDEAK	Propioak	LIDERGOA	Goieki
AURREKONTUA	Proiekuaren arabera	FINANTZAKETA	Goieki eta diru-laguntzak

**Lan lerroa** ➔ 1.2.2 Erretiroaren aurrean prestatzeko jardunaldiak antolatzea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- ❑ 60 urtez gorakoei hainbat estrategia
- ❑ Enpresei eta langileei erretiroaren kudeaketa hobea erraztea
- ❑ Enpresen beharrak erretiro-prozesuetara egokitzea

**EKINTZAK**

- 1.- Enpresei eta erakunde publikoei erretirorako prestakuntzari buruzko jardunaldi baterako deia egitea.
- 2.- Erretirorako estrategia eta prozedurei buruzko informazioa ematea

KRONOLOGIA	2023-2030	ADIERAZLEAK	Egindako jardunaldi kopurua eta parte-hartzaileak
BALIABIDEAK	Propioak	LIDERGOA	Goieki
AURREKONTUA	Proiekuaren arabera	FINANTZAKETA	Goieki eta diru-laguntzak

# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.1 Erronka demografikoa

### Estrategia

### 1.3 Goierri erakargarri egin lan egiteko

**Lan lerroa** ➔ 1.3.1 Goierri biziaren erakargarritasuna sustatzeko plan estrategiko bat garatzea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- Eskualdean bizitzeko indarguneak eta ahulguneak identifikatzea
- Eskualdean biziaren errealitatea ezagutzea eta enpresak eta erakundeak erakartzea hura hobetzen lan egin dezaten

**EKINTZAK**

- 1.-AMIA analisia egitea eskualdean bizitzeak zer dakarren azaltzeko
- 2.- Goierri biziaren sustatuko duen plan estrategiko bat diseinatzea, proposamen zehatzekin (kultura, aisia, azpiegiturak, ...)
- 3.- Hainbat erakunde publiko eta pribaturekin kontrastatzea proposamenen bideragarritasuna

<b>KRONOLOGIA</b>	2023-2025	<b>ADIERAZLEAK</b>	Plana egitea eta zabaltea
<b>BALIABIDEAK</b>	Propioak	<b>LIDERGOA</b>	Goieki + entitate partehartzaileak
<b>AURREKONTUA</b>	Proiektuaren arabera	<b>FINANTZAKETA</b>	Goieki, GFA dirulaguntzak, Spri, ...

**Lan lerroa** ➔ 1.3.2 Goierri sustatzeko plan bat egitea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- Goierri biziaren abantailak ezagutaraztea
- Goierriko biztanleria bertan mantentzea
- Kanpoko biztanleria erakartzea eta gera daitezkeen erraztea

**EKINTZAK**

- 1.- Goierri sustatzeko jardunaldiak antolatzea
- 2.- Hainbat plataformatan presentzia izatea
- 3.- Eskualdearen irudi positiboa zabaltea

<b>KRONOLOGIA</b>	2023-2025	<b>ADIERAZLEAK</b>	Plana egitea eta zabaltea
<b>BALIABIDEAK</b>	Proiektuaren arabera	<b>LIDERGOA</b>	Goieki
<b>AURREKONTUA</b>	Proiektuaren arabera	<b>FINANTZAKETA</b>	GFA dirulaguntzak, Spri...

# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.1 Erronka demografikoa

### Estrategia

#### 1.4 Balore kultural berriei egokitu

**Lan lerroa** → 1.4.1 Familientzako laguntzak zabaltzea eta lortzek prozesua erraztea

#### HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Familia izateagatik ematen diren laguntza publikoen berri ematea herritarrei
- Laguntza horiek lortzeko izpide burokratikoak erraztea

#### EKINTZAK

- 1.- Dauden laguntzak zabaltzeko eskuorriak egitea
- 2.- Laguntza horiek jasotzeko moduari buruzko aholkularitzak eskaintzea
- 3.- Familiei laguntzak lortzen laguntzea

#### KRONOLOGIA

Zehaztugabea

#### ADIERAZLEAK

Eskaera kopurua

#### BALIABIDEAK

Propioak

#### LIDERGOA

Goieki

#### AURREKONTUA

0 €

#### FINANTZIAZIOA

Goieki



# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.2 Pertsonen gaitasunen erronka

Estrategia

2.1 Kualifikazio maila baxua sakon aztertu

Lan lerroa



2.1.1 Eskualdeko hezkuntza maila eta sistemari buruzko azterketa prospektibo eta integrala egitea

HELBURU  
ESPEZIFIKOAK

- Eskualdeko hezkuntza-errealitatea ezagutzea
- Eskualdeko hezkuntza-maila handitzeko gakoak identifikatzea
- Administrazio publikoaren, ikastetxeen eta enpresen arteko komunikazio zubiak eraikitzea

EKINTZAK

- 1.-Ezagutza eta kontrol saioak antolatzea eskualdeko erakunde publikoekin eta hezkuntza erakundeekin
- 2.- Hezkuntza-sistema hobetzeko moduari buruzko plan baten diseinua proposatzea

KRONOLOGIA

2023-2030

ADIERAZLEAK

Azterketa eta jardunaldiak egitea

BALIABIDEAK

Propioak

LIDERGOA


Goieki

AURREKONTUA

Proiektuaren arabera

FINANTZIAZIOA

Gobernuko diru laguntzak, ...



# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.2 Pertsonen gaitasunen erronka

Estrategia

2.2 Tituluen homologazioa erraztu

Lan lerroa → 2.2.1 Tituluen homologazioa sustatzea eta indartzea

HELBURU ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Eskualdean talentua erakartzea erraztea</li> <li><input type="checkbox"/> Tituluak homologatzeko eta baliozkotzeko irizpide burokratikoak libratzea</li> <li><input type="checkbox"/> Lurraldez gaindiko formazioa homogeneizatzea</li> </ul>		
EKINTZAK	<ol style="list-style-type: none"> <li>1.- Hainbat titulu homologatzeko eta baliozkotzeko prozedurak identifikatzea eta zabaltzea</li> <li>2.- Homologazio eta baliozkotze prozesuan interesatuei laguntzea</li> <li>3.- Homologazio eta baliozkotze prozesua martxan jartzen dutenei behar den entitatera bideratzea</li> </ol>		
KRONOLOGIA	Zehaztugabea	ADIERAZLEAK	Baliozkozte eta homologazio eskaera kopurua
BALIABIDEAK	Propios	LIDERGOA	Goieki
AURREKONTUA	Proiektuaren arabera	FINANTZIAZIOA	Gobernuko diru laguntzak, ...



# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.2 Pertsonen gaitasunen erronka

### Estrategia

### 2.3 Formazio maila igo zentzu guztietan

**Lan lerroa** ➔ 2.3.1 Eskualdeko hezkuntza eskaintza ezagutaraztea

HELBURU ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Eskualdeko prestakuntza-eskaintza identifikatzea, zabaldu ahal izateko</li> <li><input type="checkbox"/> Herritarrei eskualdeko prestakuntza-eskaintza modu ordenatuan helaraztea</li> <li><input type="checkbox"/> Formazioa sustatzea eta gizartearen beharretara doitzea</li> </ul>
----------------------	--

EKINTZAK	<p>1.-Eskualdeko prestakuntza-eskaintzarekin katalogo bat diseinatzea</p> <p>2.- Zabaltze eta publizitate planen bideragarritasuna aztertzea</p>
----------	--

KRONOLOGIA	2023-2025	ADIERAZLEAK	Katalogoa egitea
BALIABIDEAK	Propios	LIDERGOA	Goieki
AURREKONTUA	Proiektuaren aranera	FINANTZAKETA	Gobernuko eta aldundiko diru laguntzak

**Lan lerroa** ➔ 2.3.2 Ikastetxeekin lankidetzan aritzea, herritar guztiek hezkuntzarako sarbidea izan dezaten

HELBURU ESPEZIFIKOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li><input type="checkbox"/> Enpresen, ikastetxeen eta erakunde publikoen arteko zubi egonkorak ehuntzea</li> <li><input type="checkbox"/> Egoera ahulenean dauden taldeek prestakuntza jasotzeko erraztasun berberak izan ditzaten lan egitea</li> </ul>
----------------------	--

EKINTZAK	<p>1.- Talde ahulenak zein diren identifikatzea eta haien hezkuntza-errealitatea aztertzea</p> <p>2.- Ikastetxeekin, erakunde publikoekin eta enpresekin hausnarketa-jardunaldiak antolatzea, talde horien egoera hobetzeko</p>
----------	---

KRONOLOGIA	2023-2030	ADIERAZLEAK	Matrikulazio indizea
BALIABIDEAK	Proiektuaren arabera	LIDERGOA	Goieki
AURREKONTUA	Proiektuaren arabera	FINANTZAKETA	GFA dirulaguntzak, Spri,...

# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.2 Pertsonen gaitasunen erronka

Estrategia

2.3 Formazio maila igo zentzu guztietan

Lan lerroa → 2.3.3 Lanbideetan formazioa sustatu

HELBURU  
ESPEZIFIKOAK

- ❑ Lanbideak ezagutaraztea eta balioan jartzea (harategia, garbiketa, igeltserotza, nekazaritza, ile-apaindegia, arrandegia, iturgintza...)
- ❑ Eskualdean eskari profesionala handitzea

EKINTZAK

- 1.- Eskualdeko "lanbideen" errealitatea aztertzea: azken urteetako eta etorkizuneko bilakaera
- 2.- Lanbide horietara atxikitzea sustatzeko planak diseinatzea
- 3.- Jarduera horietan prestakuntza-eskaintza sustatzea

KRONOLOGIA

Zehaztugabea

ADIERAZLEAK

Landunen tasaren eboluzioa  
aktibitatearen arabera

BALIABIDEAK

Proiektuaren  
arabera

LIDERGOA

Goieki

AURREKONTUA

Proiektuaren  
arabera

FINANTZIAZIOA

GFA dirulaguntzan, Spri,...



# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.3 Lan berdintasunaren erronka

Estrategia

3.1 Berdintasun estrategiak sustatu eskualdean

Lan lerroa



3.1.1 Ikastetxeetan, enpresetan eta erakunde publikoetan arteko berdintasuna sustatzea

HELBURU  
ESPEZIFIKOAK

- Eskualdeko genero-arrakalaren errealitatea ezagutzea
- Arrakala desagerrarazteko ideiak eta lan-ildoak proposatzea
- Gizonen eta emakumeen aukera-berdintasunaren bila jardutea

EKINTZAK

- 1.- Berdintasunari buruzko errealitatearen azterketa eskualdean
- 2.- Lan-berdintasunaren gaiari heltzeko lan-mahai bat sortzea
- 3.- Ondorioak zabaltzea eta mahaian egindako proposamenen bideragarritasuna aztertzea.

KRONOLOGIA

Zehaztgabea

ADIERAZLEAK

Enplegu indizeen eboluzioa

BALIABIDEAK

Proiektuaren arabera

LIDERGOA

Lan taldea

AURREKONTUA

Proiektuaren arabera

FINANTZIAZIOA

Subvenciones DFG, Spri,..





# 06 06.3

## ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK Lan berdintasunaren erronka

### Estrategia

### 3.2 Gizarte- eta lan-arloko genero-estereotipoei aurre egin eta horiek gainditu

**Lan lerroa** ➔ 3.2.1 Emakumeetan ZTIM bokazioak sustatzea

- HELBURU ESPEZIFIKOAK
- Emakumeetan ZTIM bokazioak sustatzea
  - Arlo zientifikoan eta industrialean lan egiten duten emakumeen kopurua handitzea
  - Industrian genero-estereotipoak gainditzea

EKINTZAK

1.- Enpleguaren errealitatea generoaren arabera aztertzea  
2.- Martxan dauden ZTIM bokazioei buruzko proiektuei laguntzen jarraitzea

KRONOLOGIA	2023-2025	ADIERAZLEAK	Enplegu adierazleen eboluzioa
BALIABIDEAK	Proiektuaren arabera	LIDERGOA	Hezkuntza zentroak
AURREKONTUA	Proiektuaren arabera	FINANTZAKETA	GFA diru laguntzak

**Lan lerroa** ➔ 3.2.2 Feminizatutako sektoreetan gizonaezkoak atxikitzea

- HELBURU ESPEZIFIKOAK
- Enpleguan dagoen genero-aldea murriztea edo ezabatzea
  - Genero-estereotipoak gainditzea zenbait sektoretan, hala nola medikuntzan, garbiketan, etab.

EKINTZAK

1.- Enpleguaren errealitatea generoaren arabera aztertzea  
2.- Gizonak sektore feminizatuetan sartzea sustatzen duten proiektuen bideragarritasuna aztertzea

KRONOLOGIA	2023-2025	ADIERAZLEAK	Enplegu adierazleen eboluzioa
BALIABIDEAK	Proiektuaren arabera	LIDERGOA	Hezkuntza zentroak
AURREKONTUA	Proiektuaren arabera	FINANTZAKETA	GFA diru laguntzak

# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.4 Langile kualifikatuen erronka

Estrategia

4.1 Hezkuntza sistemarekin elkarlana indartu

Lan lerroa → 4.1.1 Enpresa eta hezkuntza zentroyen arteko zubia erraztea

HELBURU  
ESPEZIFIKOAK

- Enpresen eta ikastetxeen arteko bizikidetzeta eta lankidetzeta hobea garatzea
- Formazioaren eta eskualdeko enpresa-beharren arteko egokitzapena hobetzea

EKINTZAK

- 1.- Lankidetzeta-mahai bat sortzea, proiektuak proposatzeko, jarraipena egiteko eta kontrolatzeko.
- 2.- Sinergia hori ahalbidetzen duten proiektuak formulatzea eta/edo sustatzea (DUAL proiektuak, Gradu Amaierako Lan egokituak...)
- 3.- Ikastetxeen prestakuntza-ibilbideak eskualdeko ekonomia- eta enpresa-errealitatera egokitzea

KRONOLOGIA

Zehaztu gabea

ADIERAZLEAK

Kontrol saioak

BALIABIDEAK

Proiektuaren arabera

LIDERGOA

Lan taldea

AURREKONTUA

Proiektuaren arabera

FINANTZIAZIOA

GFA diru laguntza, Spri...



# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.4 Langile kualifikatuen erronka

### Estrategia

### 4.2 Aldaketen aurrean langileen trebakuntzan lagundu enpresei

**Lan lerroa** ➔ 4.2.1 Enpresa barneko formazioa usstatu eta indartzea

- HELBURU ESPEZIFIKOAK**
- Langileen kualifikazioa enpresen beharretara egokitzea
  - Langileen balioa eta, ondorioz, enpresaren balioa handitzea.
  - Langileak fidelizatzea

**EKINTZAK**

1.- Egungo eta etorkizuneko enpresen prestakuntza-beharren identifikazioa bultzatzea  
 2.- Prestakuntza-ekintzak babestea eta bultzatzea, bai ezagutza teknikoak, bai zeharkako kompetentziak

<b>KRONOLOGIA</b>	2023-2030	<b>ADIERAZLEAK</b>	Kualifikazio adierazleak
<b>BALIABIDEAK</b>	Proiektuaren arabera	<b>LIDERGOA</b>	Enpresak
<b>AURREKONTUA</b>	Proiektuaren arabera	<b>FINANTZAKETA</b>	Enpresak

**Lan lerroa** ➔ 4.2.2 Teknologia berrien eta bitarteko digitalen prestakuntzaren bideragarritasuna aztertzea

- HELBURU ESPEZIFIKOAK**
- IKTetan langileak prestatzea, enpresa-kompetentziari eusten jarraitzeko

**EKINTZAK**

1.- Enpresetan IKT prestakuntzak dakartzaten abantailak sustatzea (adimen artifiziala, datuen analisia, etab.)  
 2.- Abian dauden prestakuntza-prozesuak erraztea eta indartzea

<b>KRONOLOGIA</b>	2023-2030	<b>ADIERAZLEAK</b>	Formazio eskeintza kopurua
<b>BALIABIDEAK</b>	Proiektuaren arabera	<b>LIDERGOA</b>	Enpresak
<b>AURREKONTUA</b>	Proiektuaren arabera	<b>FINANTZAKETA</b>	Enpresak, GFA diru laguntzak, Spri ...

# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.4 Langile kualifikatuen erronka

### Estrategia

### 4.3 Plantilen optimizazio eta berrikuntza sustatu

**Lan lerroa** ➔ 4.3.1 Plantillak aztertzeke eta kudeatzeko proiektuak sustatzea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- Plantillen egitura eta banaketa optimizatzea
- Langileen kualifikazioa hobetzea
- Produkzioa handitzea plantillaren kudeaketaren bidez
- Langileen gaitasun teknikoak eta zeharkako gaitasunak hobetzea

**EKINTZAK**

- 1.- Enpresei beren plantillak optimizatzeke tresnak ematea.
- 2.- Enpresek interesa izan dezaketen hainbat esparrutako prestakuntzen katalogoa sortzea
- 3.- Enpresatan lanpostu kritikoak identifikatzea eta horiei balioa ematea

KRONOLOGIA	2023-2030	ADIERAZLEAK	Kontrol saioak
BALIABIDEAK	Proiektuaren arabera	LIDERGOA	Enpresak
AURREKONTUA	Proiektuaren arabera	FINANTZAKETA	Enpresak, diru laguntzak

**Lan lerroa** ➔ 4.3.2 Goierriko berrikuntza gunea babesten jarraitzea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- Talentua sortzen eta eskualdera erakartzen jarraitzea
- Puntako enpresen kualifikazio eta erakarpen handia sustatzea zenbait sektoretan
- Prestakuntza-maila orokorra handitzea

**EKINTZAK**

- 1.- Goierriko berrikuntza guneko proiektuak babesten jarraitzea
- 2.- Ahalik eta enpresa eta erakunde publiko gehien erakartzea abian dauden proiektuetara

KRONOLOGIA	2023-2030	ADIERAZLEAK	Formazio eskeintza kopurua
BALIABIDEAK	Propios	LIDERGOA	Goieki, Goierri Valley, Enpresak
AURREKONTUA	0 €	FINANTZAKETA	Goieki

# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.4 Langile kualifikatuen erronka

Estrategia

4.4 Talentua erakarri

Lan lerroa ➡ 4.4.1 Kanpoko talentua erakartzea sustatzea

HELBURU  
ESPEZIFIKOAK

- Eskualdean talentu-ekosistema bat sortzea
- Enpresen gaitasuna garatzea, langile kualifikatuak gehituz

EKINTZAK

- 1.- Ikastetxeekin eta kanpoko enprekin talentua kudeatzeko eta erakartzeko planen bideragarritasuna aztertzea
- 2.- Lankidetzeta-harremanak ehuntzea beste eskualde, lurralde eta herrialde batzuekin
- 3.- Eskualdeak langile kualifikatuentzat dituen abantailak sustatzea

KRONOLOGIA	2023-2030	ADIERAZLEAK	Kontrol saioak eta adierazle demografikoak
BALIABIDEAK	Proiektuaren arabera	LIDERGOA	Goieki, Enpresak, Hezkuntza zentroak
AURREKONTUA	Proiektuaren arabera	FINANTZIAZIOA	GFA diru laguntzak, Spri,..



# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.5 Atzerritarrak integratzeko erronka

### Estrategia

### 5.1 Atzerritarren gizarteratzea eta laneratzea erraztu

**Lan lerroa** ➔ 5.1.1 Eskualdeko atzerritarren errealitateari buruzko azterketa bat egitea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- Eskualdeko etorkinen errealitatea ezagutzea
- Gizarte eta lan arloko politikak migrazioaren errealitatera hobeto egokitu ahal izatea
- Kultura-talka dela-eta egon daitezkeen desorekak aurreratzea

**EKINTZAK**

- 1.- Imigrazioa aztertzeke mahai bat egitearen bideragarritasuna aztertzea
- 2.- Hainbat erakunde publiko eta pribaturekin lankidetzan aritzea, biztanleria etorkinaren azterketa errazteko

<b>KRONOLOGIA</b>	2023-2025	<b>ADIERAZLEAK</b>	Realización del estudio
<b>BALIABIDEAK</b>	Propios	<b>LIDERGOA</b>	Goieki
<b>AURREKONTUA</b>	0 €	<b>FINANTZAKETA</b>	Goieki

**Lan lerroa** ➔ 5.1.2 Laneratzea errazten duten proiektuei jarraipena ematea eta horiek indartzea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- Atzerritarrak eskualdeko enplegura atxiki daitezzen erraztea
- Ibilbide-orriak egitearen bideragarritasuna aztertzea, enpleguan gizarte- eta kultura-kohesioa errazteko
- Atzerritarrak laneratzen lan egiten duten proiektuak babestea eta bultzatzea

**EKINTZAK**

- 1.- Abian dauden proiektu guztien berri izatea eta proiektu horiek duten eragina aztertzea.
- 2.- Abian dauden proiektuak sustatzea eta instituzionalki babestea (Elkar-ekin, adibidez)

<b>KRONOLOGIA</b>	2023-2030	<b>ADIERAZLEAK</b>	Proiektuen egitea eta hauen indarra
<b>BALIABIDEAK</b>	Proiektuaren arabera	<b>LIDERGOA</b>	Goieki, GKE, ...
<b>AURREKONTUA</b>	Proiektuaren arabera	<b>FINANTZAKETA</b>	GFA diru laguntzak

# 06

## 06.5

# ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## Atzerritarrak integratzeko erronka

### Estrategia

### 5.1 Atzerritarren gizarteratzea eta laneratzea erraztu

**Lan lerroa** ➔ 5.1.3 Ikastetxeek bigarren belaunaldiko kanpotarren inklusioan lan egin dezaten sustatzea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- Biztanleria atzerritarraren integrazioa hobetzea gizartean eta ekonomian
- Eskualdean kualifikazio-maila handitzea

**EKINTZAK**

- 1.- Ikastetxeei laguntzea etorkin gazteak hobeto integratzeko ibilbide egokiak presta ditzaten.
- 2.- Adin txikiagoko hezkuntza-lanaren balioa ezagutaraztea integrazio-lanerako

<b>KRONOLOGIA</b>	Zehaztu gabea	<b>ADIERAZLEAK</b>	Adierazle demografikoak
<b>BALIABIDEAK</b>	Proiektuaren arabera	<b>LIDERGOA</b>	Hezkuntza zentroak
<b>AURREKONTUA</b>	Proiektuaren arabera	<b>FINANTZIAZIOA</b>	GFA diru laguntzak, GKE, ..

**Lan lerroa** ➔ 5.1.4 Laneratzeko enpresen lana sustatzea eta babestea

**HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- Atzerritarrak eskualdeko enplegura atxiki daitezen erraztea

**EKINTZAK**

- 1.- Laneratzeko enpresen egoera eta lana aztertzea eta enpresekiko komunikazio- eta lankidetzazubiak eraikitzea
- 2.- Abian dauden proiektuak sustatzea eta instituzionalki babestea (Elkar-ekin, adibidez)

<b>KRONOLOGIA</b>	2023-2030	<b>ADIERAZLEAK</b>	Proiektuen egitea eta hauen indarra
<b>BALIABIDEAK</b>	Proiektuaren arabera	<b>LIDERGOA</b>	Goieki, GKE, ...
<b>AURREKONTUA</b>	Proiektuaren arabera	<b>FINANTZAKETA</b>	GFA diru laguntzak

Estrategia

6.1 ETE eta traktoren elkarlana indartu

**Lan lerroa** → 6.1.1 Martxan dauden foroetan eta lan-mahaietan lanean jarraitzea

- HELBURU ESPEZIFIKOAK
- ❑ ETEen eta traktoren arteko kohesioa eta lankidetzaren hobetzea, etengabeko komunikazioaren bidez
  - ❑ ETEen eta traktoren arteko lankidetzaren espazioak sortzea eta sustatzea

EKINTZAK

1.- Enpresen arteko komunikaziorako sortutako foroak babestea (traktora-foroa, ETEen foroak, azpikontratazio-mahaia, ikuspegi estrategikoko saioak, etab.)  
2.- Goierri Valleyren irudia balioestea, segurtasun- eta komunikazio-elementu gisa

KRONOLOGIA	Zehaztu gabea	ADIERAZLEAK	Kontrol saioak
BALIABIDEAK	Proiektuaren arabera	LIDERGOA	Goierri Valley
AURREKONTUA	Proiektuaren arabera	FINANTZAKETA	Enpresak, Goierri Valley, GFA diru laguntzak

**Lan lerroa** → 6.1.2 Epe ertain eta luzerako bizikidetzarako ibilbide-orri bat diseinatzeako aukera aztertzea

- HELBURU ESPEZIFIKOAK
- ❑ ETEen eta traktoren arteko kohesioa eta lankidetzaren hobetzea, etengabeko komunikazioaren bidez
  - ❑ ETEen eta traktoren arteko kohesio- eta lankidetzaren aukeren egiturazko begirada garatzea
  - ❑ ETEen eta traktoren arteko lankidetzaren espazioak sortzea eta sustatzea

EKINTZAK

1.- Enpresa traktoren eta ETEen arteko komunikazioa hobetuko duten espazio komun sendoak eta finkoak sortzearen bideragarritasuna aztertzea  
2.- Indarrean dauden lankidetzaren guneak sustatzen jarraitzea

KRONOLOGIA	Zehaztu gabea	ADIERAZLEAK	Kontrol saioak
BALIABIDEAK	Proiektuaren arabera	LIDERGOA	Goierri Valley
AURREKONTUA	Proiektuaren arabera	FINANTZAKETA	Enpresak, Goierri Valley, GFA diru laguntzak



Estrategia

6.1 ETE eta traktoren elkarlana indartu

**Lan lerroa** → 6.1.3 ETEen eta traktoren arteko plantillen eta kontratuen oreka erraztuko duten neurriak sustatzea

HELBURU  
ESPEZIFIKOAK

- ❑ Enpresen baitan zein enpresen arteko plantilak optimizatzen laguntzea
- ❑ Talentu-ihesa eta gaitasun handieneko enpresen fagozitazioa saihestea

EKINTZAK

- 1.- Barne-egiturari buruzko azterlanak egiten dituzten eta plantillak ondo zehazten dituzten enpresei pizgarriak ematea
- 2.- Enpresen arteko komunikazio-espazioak sortzea, kontratazio masiboak eta/edo enplegatuen ihesa saihesteko
- 3.- Plantillak leialtzeko eta errespetatzeko politikak proposatzea

KRONOLOGIA

Zehaztugabea

ADIERAZLEAK

Kontrol saioak

BALIABIDEAK

Propioak

LIDERGOA

Enpresak, Goierri Valley

AURREKONTUA

0 €

FINANTZIAZIOA

Goierri Valley



**Estrategia**

**6.2 ETEak erakargarri egin**

**Lan lerroa →**

6.2.1 ETEak balioan jartzea eta erakargarri egiteko politikak bultzatzea

**HELBURU  
ESPEZIFIKOAK**

- ETEak ikusaraztea, haien balioa ezagutaraziz
- ETEen eta erakunde publikoen arteko lankidetzak sortzea, haien balioa handitu ahal izateko
- Eskualdeko enpresa-sarea hobetzea

**EKINTZAK**

- 1.- ETEen balioa sustatzen duten mahaiak babestea
- 2.- ETEen balioa handituko duten ekitaldiak edo proiektuak antolatzearen bideragarritasuna aztertzea
- 3.- Monetizazio- eta serbituzio-politikak sustatzea
- 4.- ETEek beren irudia hobetzeko neurriak har ditzaten bultzatzea. Marka enplegatzailearen prozesuak sustatzea
- 5.- ETEak ikusgai jartzen dituzten ekitaldiak edo proiektuak antolatzearen bideragarritasuna aztertzea

KRONOLOGIA	2023-2030	ADIERAZLEAK	Kontrol saioak
BALIABIDEAK	0€	LIDERGOA	Foro Pymes
AURREKONTUA	0 €	FINANTZAKETA	Goierni Valley



# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.7 Balore aldaketen erronka

### Estrategia

#### 7.1. Balore soziorabial berriei erantzuna bilatu

**Lan lerroa** → 7.1.1 Gizarte-balio berriei buruzko entzumen-prozesu bat zabaltzea

HELBURU  
ESPEZIFIKOAK

- Balio-aldaketaren errealitatea ezagutzea
- Lan-etika berriaren indarguneak identifikatzea eta enpresen premietara egokitzeko

EKINTZAK

- 1.- Gizartearen beharrei eta kezkei buruzko inkesta bat egitea
- 2.- Lortutako emaitzak aztertzea eta ondorioak zabaltzeko jardunaldiak antolatzea

KRONOLOGIA

2023-2024

ADIERAZLEAK

Erantzun kopurua

BALIABIDEAK

Propioak

LIDERGOA


Goieki

AURREKONTUA

0 €

FINANTZIAZIOA

Goieki



# 06 ESTRATEGIAK ETA LAN LERROAK

## 06.7 Balore aldaketen erronka

### Estrategia

### 7.2 Lan-baldintzak gizarte-balio berrietara egokitu

**Lan lerroa** → 7.2.1 Lan-baldintzak aldatzearen eta egokitzearen bideragarritasuna aztertzea

HELBURU  
ESPEZIFIKOAK

- Balio berriak enpresen beharretara egokitzea
- Eskualdeko lan-ongizatea hobetzea

EKINTZAK

- 1.- Enpresen indarguneak eta ahulguneak aztertzea lan-eredu berriak ezartzerakoan
- 2.- Neurrien bideragarritasuna aztertzea, hala nola ordutegi malguak, telelana, enpresa barruko zerbitzuak, etab.
- 3.- Epe ertain eta luzerako komunikazio-plan bat garatzea gizartearen eta enpresen artean

KRONOLOGIA

Zehaztu gabea

ADIERAZLEAK

Enpresen parte hartzea

BALIABIDEAK

Proiektuaren arabera

LIDERGOA

Enpresak

AURREKONTUA

Proiektuaren arabera


FINANTZIAZIOA

Enpresak



# 07 GOBERNANTZA

# 07 GOBERNANTZA





**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Turismoko eta Landa  
Ingurunekeo Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de Promoción  
Económica, Turismo  
y Medio Rural

